



V. Aizkorriko Lagunen Eguna



**Pottoka gunea
Zaldibian**

**Goierriko museoa eta
Gastronomia museoa
Ordizian**

**Ordiziako koadrila
arteko futbol
txapelketak 25 urte**



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ODONTOLOGOA



ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT

H O R T Z

ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN

K L I N I K A

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

I N T E G R A T U A

Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



RPS144/02



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA

BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



FREELANDER BERRIA **NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA**

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak



Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06

Goierrirako zerbitzua: ANZIZAR

Beasain-Zumarraga errep. • Telefonoa: 943 88 17 00



Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Ion Muñoa, Aitziber Murua, Maite Lasa, Iñaki Ugalde, Iñaki Gurrutxaga eta Landarlan.

Azaleko argazkia: Javier Fernandez.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkariaren adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Goierritarra aldizkariaren 2004ko laguntza kuota uztailaren 9an kobratuko da

Lerro hauen bidez zera adierazi nahi dizue GOIERRITARRA aldizkariak: 2004. urteari dagokion laguntza kuota uztailaren 9an kobratuko dela, aurrez emandako kontu korrontetik. Aurten ere, laguntza kuota 12 eurokoa izango da. Hau da, hilean euro bat.

Eskura ordaindu zenutenoi ere dei berezia egiten zaizue. GOIERRITARRA aldizkariaren bulegotik patsatzea (Ordiziako Santa Maria kalea, 4-1.) edo GOIERRITARRA aldizkariaren kontu korrontean dirua sartzea. Edonolako zalantzarik izanez gero, deitu lasai GOIERRITARRA aldizkarira: 943-88 96 12.

2002. urtean hasi zen GOIERRITARRA aldizkaria, posta gastua kobratzen, Correos-ek egindako igoeraren ondorioz. Borondate oneko irakurleoi esker, GOIERRITARRA aldizkaria hamabostero etxean irakurtzeko aukera dugu. 2004. urtea amaitzerako gainera, berrikuntza handiak izango ditugula aurreratuko dizuegu. Hurrengo alean izango dituzu xehetasun gehiago.

Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro



Madrilgo Metroko trenak egingo ditu Beasaingo CAF enpresak

520 milioi euroko kontratua sinatu du

Beasaingo CAF enpresak beste kontratu garrantzitsu bat lortu du. Madrilgo Metrorako 90 tren eta 14 bagoi motor egingo baititu 2007rako, Bombardier eta Siemenes multinazionalekin batera. Guztira 432 bagoi. 645,8 milioi euroko kontratua da eta CAFentzat, kopuru horren %80a izango da, 520 milioi euro inguru.

3000 modelo trena egingo dute Madrilerako. Egitura arina, aleazio eta aluminioarekin eginak, aurrez aurrezko talkentzako babes sistema, etengabeko kontrol eta diagnosirako sare informatikoa, babes sistesma eta gidatze sistema automatikoa, aire egokituak, suteen detekzio eta itzaltze sistema eta zaintzarako eta entretenimen-durako bide sistemak izango ditu.

1918tik

CAFek 1918an egin zituen Madrilgo Metrorako lehen trenak. Hango ia tren guztiak, 1.700 bagoi inguru, CAFek eginak baitira. Erromako,artzelona eta Bruselako metroetako trenak ere CAFek eginak dira.

Beste lanak

2003. urtean 495 milioi euroko salmentak egin zituen CAFek. 2004. urteko maiatzaren amaieran, 2.300 milioi euroko eskaera kartera zuen. Momentu honetan, CAF ondorego lanetan dago murgildua: AEB, Irlanda Iparraldea, Irlanda, Brusela, Erroma, Mexiko, Madrid, Sevilla,artzelona, Renfe, Eusko Trenbideak, Kataluñako Burdinbideak, Mallorcakoak....

Metalgintzako greba

Ekainaren 28an, metalgintzako langileek greba egin zuten, ELA, LAB, CCO, UGT eta ESK sindikatuen deia erantzunez. Patronalek lan hitzarmena negoziatzeko jarrera itxia dutela salatu dute grebalariek, eta mahaian esertzeko eskatu diete.

Beasain eta Ormaiztegi erraustegia kokatzeko hautagaien artean

Ekainaren 28an Garapen Eramangarriko diputatua den Luis Mari Oiarbidek prentsaurrean azaldu zuenez, Gipuzkoako bigarren errausteko planten kokaguneei dagokienean, zortzi herriren artean erabakiko da, tartean, Beasain eta Ormaiztegi. Gainerako herriak hauek dira: Donostia, Urnieta, Usurbil, Villabona, Bergara eta Zestoa. Aurrez erabakita dagoen erraustegiaren kokalekua, Txingudi eskualdea da.

Eskualdeetako Mankomunitateen esku utzi du Diputazioak txostena, eta horiek egindako azterketen arabera hartuko omen du Foru Aldundiak, azken erabakia.

Sugan musika taldea bigarren Euskal Herriko kantu txapelketan

Beasaingo Sugan taldea, bikotekako atalean, bigarren izan zen ekainaren 19an Donostian jokaturako Euskal Herriko kantu txapelketan. Eurek sortutako 'Zarena zarelako' kantuak emaitza onak eman dizkie. Maria Amolategik eta Eli Bujandak jartzen dute ahotsa, Garazi Zabaleta teklatuetan aritzen da eta Vicente Sanchez baterian.

Parrondo anai-arrebak irabazle

Segurako dantza txapelketan

Hirugarren urtez jarraian, Aitor eta Amaia Parrondo anai-arrebek irabazi zuten ekainaren 20an Seguran jokaturako Euskal Herriko dantza txapelketa. Hiru urtez jarraian garaipena lortzeagatik, Nestor Basterretxearen eskultura eraman dute beraien herriko udaletxean jartzeko, Hernanin hain zuzen ere. Bosgarren bikotea da, Basterretxearen eskultura jaso dutela.

Dantzarien jantziak ere saritzen dira Seguran. Kasu honetan, Hernaniko Xabier Segura eta Lierni Martiarena bikotearen jantziak izan ziren epaimahaiaren ustez dotoreenak.



Espainiako Cricket txapelketara joango diren Zelan taldekoak.

Zelan dardo taldekoak Espainiako cricket txapelketan

Alcobendasen dira Beasaingo Zelan dardo taldeko ordezkariak. 4 talde zehazki. Espainiako XI. taldekako cricket txapelketak jokatzeko ari baitira bertan. Gipuzkoako txapelketetatik 4 talde sailkatu dira: 1., 2. eta 3. dibisioko talde bana eta emakumezkoen taldea. Espainiako txapelketatik, Alemanian jokatu den Munduko txapelketarako eta Kroazian jokatu den Europako txapelketarako ordezkariak aukeratu dira.

Euskal Herriko sega txapelketak Seguran

Ekainaren 27an Segurako maduran nazioarteko eran jokatu zen norgehiagokan 33 segalarik parte hartu zuten. 24 gizonezko eta 9 emakumezko. Jarraian duzue sailkapena:

Emakumezkoak: Sega txikian: 1. Izaskun Larrarte. 2. Ainhoa Ansa. 3. Aloña Jauregi. **Sega librean:** 1. Aloña Galarraga. 2. Izaskun Larrarte. 3. Rosi Urkola.

Gizonezkoak: Sega txikian: 1. Juan Manuel Erasun. 2. Bixente Mitxelena. 3. J. Mari Agirrezabala. **Segan handian:** 1. Juan Mari Erasun. 2. J. Mari Agirrezabala. 3. Bixente Mitxelena.

Beasain txapeldun xakean

Beasaingo Alfil xake elkarteak irabazi zuen XX. Eibar Hiria xake txapelketa.



Olaberri herriarteko pala txapelketan irabazle

Aurten ere txapeldun izan dira Olaberriakoa, Gipuzkoako herriarteko pala txapelketan. Gari Arrieta, J. Manuel Garrido, Iker Arrieta, Xabier Berasategi eta J. Luis Sarasola izan ziren txapeldunak. Oartzun izan zuten arerio finalean.

Beasain Herriarteko pilota txapelketan

Finalerdietaraino iritsi dira beasaindarrak Herriarteko pilota txapelketan. Azpeitia izan du arerio azken txanpan eta ezin dute aurrera egin.

Arkaitz Iurrita eskalatzailearen erronka

Beste hiru kiderekin batera, Arkaitz Iurrita ormaiztegiarrak bi erronka ditu eskuartean: Trango dorre ikusgarrietan, Dorre Nagusian 'Banana-Mango Mix' bide gogorra bukatzea eta Izenik Gabeko Dorrean 'Eternal flame' bidea eskalatzea. 25 urte ditu Iurritak.

Julen Gonzalez Euskadiko txapeldun

Ekainaren 20an Julen Gonzalez txirrindulari beasaindarrak Euskadiko bigarren urteko kadeteen Euskadiko Txapelketa irabazi zuen Oñatin. Azken aldapa, Udanako portua, gaintitu ondoren jaitsieran erori bazen ere, aurreko taldearekin bat egitea lortu zuen eta esprintean bereganatu zuen garaipena. Uztailerako Julen Espainiako selekzioarekin kontzentrazio batera joateko hautatua dago.

Ez dago superdotatua izan beharrik, naturaren erritmoa hartu baizik

Garapen jasangarriaren bide-tik, lan asko egiten da, eta ekitaldi ugari izaten dira. Tokiko Agenda 21a garapen jasangarrira iristeko edo hurbiltzeko tresna bat da. Batetik partizipazioa funtsezkoa delako, eta bestetik jendeari zuzendutako ideiak direlako, gai honen inguruan jende multzoak bildu ohi izan gara. Gehienetan irteten duen arazoa da komunikazioa.

Tokiko Agenda 21arekin ari direnak diote, zein zaila den jendeari komunikatzea, hau da; jendea nola bileretara ekarri, nola partehartze foru bat osatu, nola ekitaldietara jendea hurbildu arazi, eta honetarako dauden bitarteko denak ibilita; triptikoak, karmeluak, irrati kuinak, egunkariko iragarkiak, kaleko kartelak, ea.ea.

Publizista batek zion, iragarki batek, ondo bidean, jendearengan ekintza bat eragin behar duela, ez duela soilik; arreta sortu, liluratu edo txunditu egin behar, azken baten ez badu zerbait egin arazten, ez omen du balio. Orain arte guri, ingurugiroa edo jasangarritasunaren bueltan, mezu asko iritsi zaizkigu, eta gauza asko egin arazi digute. Horretarako baina, dauden teknika

publizista hobenak erabili dira, eta emaitzak era hor dau-de.

Orain ordea, badirudi, teknika horiek ezin dutela gure-gandik ezer gehiago atera, ez dutela etekinik ematen eta krisian daudela. Garai hauetan, lehen aipatutako bilkuretan sarri entzuten da, imajinazioa behar dela komunikatzeko, erakartzeko, jendearengana iristeko, eta erreklamo onak topatu behar direla. Batzuetan aipatzen da trafikoko iragarki gordin horien tonua beharko litzatekeela zerbait lortzeko.

Izan ere, marketingaren zati bat da bezeroarengan behar berriak sortzea, eta segidan produktu jakin batekin asetzea. Ingurumenari dagozkionez ere, iragarkien bidez, zerbait txarra ekiditeko mobilizatu gaituzte, eta gehienetan, azaldutakoa egiten ez duena konpromiso batean, lotsatuta, uzteko moduko mezuak iristen zaizkigu. Kanpainen arduradunak emaitzak neurtzen dituzte, eta zenbakiak ondo atera dira orain arte. Pentsa, orain arteko kontuak ekintza mekanikoak zirela, ez zutela iniziatibarik eskatzen. Ez da berdina, zaborrak bereiztea, telebistatik zoriontzen zaituzten bitartean, edota bilera batera joan eta iritziak entzun eta norberarena ematea.

Iragarki beldurgarriak egiteari berriz, deritzot; ekintza bat ez errepikatzeko balio duen mezu motak, ez duela balioko, akaso, jokabide konprometitu baten murgildu arazteko.

Esango nuke, komunikazio krisi honetan, pauso bat atzeragotik hasi eza dela gure akatsa. Gutxienez kurio-soa bada, gure herrian ingurumenari begira jar gaitezten, Rio de Janeiron egin zen bilkura batetako egitasmoak aurretik ditugula abiatzen garela, garapen jasangarriaren definizioa segidan luzatuz. Hau da; zer galduko dugun, eta zer faltako zaigun esaten dute iragarkiek, baina benetan falta dena da: daukagunaz jabetzea, eta daukagun hori estimatzea. Hortik abiatuta, jasangarritasunaren mezuak ez lirateke arrotzak suertatuko.

Lehenengo eta behin behar dena da: herritarrak bere patrimonio naturala ezagutzea, baloratzea, bere zaintzaz arduratzea, eta bere gabeziaz haserretzea. Mezuak, positiboan jarri beharko genituzke, daukaguna gorai-patuz, zehaztuz, deskribatuz, eta eskumena dutenek balio hauek jendearengana hurbilduz, eta entregatuz.

Gure artean ikusten dugu, baserri giroan dabilenak ingurumenarekiko duen errespetua ez dela iragarkietako

mezuetatik sortu, baizik eta bizi esperientziatik. Kasu hauetan gerta ohi da, erantzuna ez dela beti espero zena izaten, baina hori, bere ogibidea jokoa jartzen delako ere bada, edo horrela pentsa arazten dutelako iragarkiek.

Entzundakoa dut ume superdotatuak, besteengandik bereizten direla, beraiek kanpotik jaso baino gehiago barrutik ateratzen dutelako jakinduria, ikasi baino gehiago gogoratu egiten omen dute. Asko esatea ez bada, gure kasuan ere oraindik barruan eduki behar dugu ingurumenarekiko errespetua, eta hori ateratzen badugu, mezuak eragingo digute, hauek hain sofistikatuak izan gabe ere.

*Juan Mari Apaolaza Estensoro,
Mendi Ingeniaria (Zegama)*



kutxa

gizarte ekintza

Errausketa, hondakinen tratamendu gisa

San Markos Mankomunitateak emandako definizioaren arabera errausketa honako hau litzateke: "hiri hondakinen tratamendua osagarritzko prozesu industrial non bererabili, berziklatu eta konpostatu ez diren hondakinak erretzen diren, elektrizitatea sortuz. Prozesu honek hondakinak zabortegira eramatea ekidingo du eta gainera, ez du eragin kaltegarririk ez osasunean ez eta ingurumenean ere". Definizio hau benetakoa izatetik urrun dago eta ondorengo delituan eror daiteke: Prebarikazio teknika.

Lehenik eta behin, lortzen den energia elektriko kopurua, birziklapen edo hondakinen tratamendu on batekin lor litekeena baino dezente txikiagoa da. Ustel daitekeen material organikoa behar bezala erre dadin, beharrezkoa da erregaia gehitzea. Horretarako birziklatzen diren gaiak erabiltzen dira papera, plastikoa, egurra, etab. honela hauen birziklapena alde batera utziz.

Ez da egia zabortegirik ez dela beharko diotenean. Zaborra erre egiten da baina %30a errauts oso toxiko moduan geratzen da eta hau segurtasun handiko zabortegi batera eraman behar da: zabortegi hauek egun ditugunak baino kaltegarriagoak dira. Egun, gure inguruan ez dago hondakin arriskutsu eta toxikoen zabortegirik.

Kyoto, Washington, Rio... eta bestelako tratatu eta konpromezuez hitz egiten den bitartean, erraustegiak hainbat gas kaltegarri kanporatuko dituzte: CO, CO₂, SO₂, HCl... zeinak aski ezagunak diren eta hala frogatuta, berotegi-efektua sortzen duten. Gas hauek kanporatzeak beroketa globala gehitzen du eta euri azidoa, smog, lanbro azidoa, etab. sortzen ditu. Hau gutxi balitz, beste hainbat substantzia toxiko kanporatuko dira. Horien artean giza osasunarentzat oso kaltegarriak diren metal astunak, dioxinak eta furanoak daude.

Asko dira errausketaren arriskuak gogorazten dituzten mediku eta zientzilarien informeak. 15 urtez ikerketa lanetan aritu ondoren, errausketak sor ditzaken gaitzak aipatzen dituzte. Ondorengo hauek adibide batzuk dira:

- Linfoma, No-Hodgkin bereganatzeko arriskua 2,3 aldiz handitzen da erraustegiaren 10 km-ko erradioan.
- Minbizi edo ehun biguinen sarkoma garatzeko arriskua 31,4 aldiz handiagoa da 2 km-ko erradioan
- Cumbriako (Erresuma Batua) erraustegiaren inguruetan umekiaren mutazio eta malformazioak nabarmenki igo dira, zehazki %17 espina bifido kasu gehiago eta %12 gaitz kardiako gehiago.
- Leuzemia edo haur minbizia garatzeko arriskua bikoiztu egiten da 7,5 km-ko erradioan bizi diren haurrengan.

Herrialde askotan errausketa baztertzen ari dira hondakinen tratamendu-sistema moduan. Baix Llobregat-en burututako hondakinen gestio onak bilketa selektiboa %80koa izatea lortu du honela, erraustegien zeregina ezereztuz. Estatu Espaniarrak 30 erraustegi proiektuetatik 6 bakarrik atara ahal izan ditu aurrera. Gainera, Madrilgo Valdemingomezeko erraustegia partzialki itxi da emisio datuen faltsifikazioagatik eta 20km-ko erradioan dauden herrietan eragindako osasun kalteengatik. Erresuma Batuan 25 kilometroko erradioan aurkitzen den abeltzantzaren esnea komertzializatzea debekatua dago.

Datu hauek guztiak ezagunak diren bitartean, Mankomunitateek eta honen buruzagiek eta Diputazioak informazioa gordezten dute, hiritarrekin kontsultatu gabeko erabakia hartu nahi dute eta gestio guztia gordeka egin. Herri-plataformek eztabaida soziala ireki dadin eskatzen dute eta herriarren plataforma bati dagokion informazio guztia eman dezaten.

Amaitzeko, errausketa prozesua ikaragarri garestia da. Era berean, inguruko etxebizitza, terreno eta ongizateen balioa gutxitu egiten da %15- 30 bitartean. Biztanleriak berriz aurre egin beharko dio 22.000 milioi pezetako inbertsioari, zaborren tarifa eta zergen bidez, zeinak noski, nabarmenki igoko diren.

Estibaliz Arbelaitz
(Oiartzun, ke? Plataforma)

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Soja transgenikoa, baita elikagai ekologikotatik ere:** Erresuma Batuan ikertutako 25 produktu ekologikotatik 10ek soja transgenikoa dutela aurkitu dute. Hala, agerian gelditu da zein zaila den transgenikorik gabeko elikagaiak lortzea. Berez, elikagai ekologikoen gehienez genetikoki eraldatutako % 0'1 material izan dezakete. Baina soja soro askotan hazi transgenikoak nahasten zaizkio ohiko sojari, % 1-2, eta transgenikorik gabeko soja gisa saltzen da. Ondorioz, soja-irina edo soja daukan beste janariren bat ekoizten duten enpresek zail ikusten dute batere transgenikorik gabeko soja lortzea.

✓ **Ordenagailuen eragina ingurumenean:** Nazio Batuen ikerketa baten arabera, ordenagailu arrunt bat egiteko erabiltzen diren gai kimiko gehienak toxikoak dira. Horrez gain, ekoizpenean erabiltzen diren erregai fosilak eragin zuzena dute ingurumenean. Bestalde, iraupen laburra dutenez, ordenagailu eta ordenagailu zati-asko pila-tzen dira zabortegietan. Birziklatzen direnean ere, sarritan ez omen dira segurtasun-neurri egokiak hartzen. Ordenagailuen erabilerak hartu duen indarra ikusita, Nazio Batuetako ikertzaileek uste dute neurriak hartu beharko direla arlo horretan, epe luzean ondorio larriak izan daitezke bestela.

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44



Iraunkortasunaren

12 irizpideak:

1. Baliabideen erabilera egokia egitea.
2. Inguruneak berritzeko duen berezko ahalmena ez gaitztea.
3. **Bioaniztasuna baloratu eta babestea.**
4. Lurzoruaren erabilera iraunkorra izatea.
5. Mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea.
6. Tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea.
7. Soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea.
8. Oinarritzko zerbitzuak eskura izatea.
9. Gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkuntza.
10. Bizi-kalitate egokia bermatzea.
11. Gizarte-inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea.
12. Elkartasuna esparru orokorreko arazoaren aurrean.

3. Bioaniztasuna baloratu eta babestea

Bioaniztasunaz (dibertsitate biologikoa) hitz egitean, joera daukagu espezieen aniztasunera mugatzeko, baina bioaniztasunaren barruan animali eta landareak baina gehiago sartzen dira: Kultura dibertsitatea, Paisaia dibertsitatea, Komunitate dibertsitatea, Espezie dibertsitatea eta Gene dibertsitatea. Eta aniztasun edo dibertsitate guzti hauek galtzen ari gara. Geroz eta espezie gutxiago dauzkagu, paisaia ere geroz eta homogeneoagoa da (hiri gehienak antzekoak dira). Kultura ezberdinen galera ere nabaria da (hizkuntzak galduz doaz).

Galera hauen aurrean ezinbestekoa zaigu daukaguna ezagutu, baloratu eta babestea. Zer daukagun jakin gabe, zer galtzen ari garen sekula ez dugu jakingo eta.



Lurra ez da gure gurasoen ondare, gure seme-alaben mailegua baizik.

Indiarren gogoeta



Bal al dakizu?

- ➔ Urtero 20.000 espezie ari gara galtzen.
- ➔ Espezie galeraren arrazoi nagusiena **habitat desagerpena** (espezie hauen bizilekuen desagerpena) da.
- ➔ Munduan badira bereziki azkar galtzen ari diren zenbait gune: Hego Ameriketako lurmuturra, Madagaskar, Brasileko Oihan Atlantiarra...
- ➔ **Kanpoko espezieen** eragina ere nabarmena da **bertako espezieen galeran**. Esaterako, Ameriketako Karramarro Gorriak bertako erreketako karramarroari parasito hilgarri bat kutsatzen dio. Etxeetan

maskota moduan edukitzen den Florida Dortokak ere, bertako ekosistemetan askatuz gero, ondorio kaltegarriak eragiten ditu.

- ➔ Nahiz eta guztiak identifikatu eta sailkatu gabe egon, 10 milioi invertebratu espezieetik gora daudela kalkulatu da, hauetatik gehienak kakalardoak dira.
- ➔ **Goierri**n galtzeko arriskuan dagoen hegazti espezi bat daukagu: **Ugatza**.
- ➔ Hemendik 100 urtera munduan **espezieen %50a babesturiko eremu**etan biziko dela kalkulatu da, beraz garrantzi handia du eremu babestu hauek non eta nola egin behar diren ondo aztertzeak.



**Pello
Barandiaran**
(Gertu
aholkularitza)

Azken urte hauetan, eta batez ere teknikaren aurrerabidearen bizkortzearekin, informetika erabiliz pertsona fisikoei buruzko hainbat eta hainbat datu trata dezakegu, eta bali-teke intimitatea urratzen duen hainbat gauza ezagutzea per-sona horiei buruz.

Medikuarenean, dendetan, ikastetxeetan, udaletxean, banketxean eta beste hainbat lekutan gure datuak dituzte, eta askotan etxetik kanpo inork jakitea gustatzen ez zaizkigun datu eta zehaztasu-nak.

Teknologiaren eta pertso-nen intimitatearen arteko ten-tzio horrek, legearen eskuhar-tzea eskatzen du bi ondasun horien artean oreka lortzeko. Era honetan, estatu mailan 15/1999 lege organikoa argi-taratu da, eta honi jarraiki Euskal Autonomi Elkartean, 2/2004 legea.

Bi lege hauek, norbanako-aren intimitatea babestea dute helburu; horretarako, perso-na guztiek beren datuekiko dituzten eskubideak aldarri-katzen dituzte lehenik, eta es-kubide hauek defendatzeko prozedurak bigarrenik. Ho-nen ondoan, datuak beren es-kuartean erabiltzen dituzten entitate (publiko zein pribatu) orok izango dituen betekizu-nak azpimarratzen dituzte.

Norbanakoaren eskubideak

- Norbanakoak, bere burua-rekiko inongo baloraziorik ez egitea eska dezake, edonork automatizatuta izan ditzakeen bere datuak abiapuntu bezala hartuaz.
- Datuen Babeserako Erre-gistrora kontsulta egiteko

eskubidea edonork izango dugu.

- Datuen aldaketa, ezabatzea nahiz zuzenketa eskatzeko eskubidea.
- Entitateren batek Legean ezarritakoaren aurka joka-tuz-gero, kalteordain esku-bidea.

Entitateen betekizunak

Beren fitxategietan datuak ja-sota dituen entitate orok, ho-nako printzipio hauek kontu-tan izan beharko ditu:

- Lortutako datuak egiazko-ak, zehatzak, eta kalitatez-koak direla. Ezingo dira datuak iruzur bidez lortu.
- Bere eginkizunarekin amaitu ondoren, datuak deuseztuak izan beharko dute.
- Jasotako datuak fitxategi automatizatu batera doa-zenaren berri norbanako orori eman beharko zaio, eta era berean datu hoieki-ko bere eskubideen berri.
- Entitate orok Datu Auto-matizatuen Fitxategien ba-beserako sortu den Erre-gistro Zentralari eman be-

harko dio bere jabegoan dituen fitxategi automati-zatuen berri. Euskal auto-nomi elkartearen kasuan Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

Babesa eta prozedurak

Datuen Babeserako Euskal bulegoak izango du norbana-koaren interesen defentsarako ardura. Laburbilduz, hauek izango dira bere funtzioak:

- Datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea.
- Norbanakoen eskaera eta kexei kasu egitea.
- Pertsona orori datu pertso-nalak tratatzea dela eta di-tuen eskubideei buruzko informazioa ematea.
- Zigorak ezartzeko ahal-mena

Orokorrean beraz, hiru subjektu desberdinen esku geratuko litzake datu pertso-nalen tratamenduaren kontua; datuak eskaintzen dituen per-sona, datuak fitxategian di-tuen pertsona fisiko nahiz ju-ridikoa eta datuen babesaren arduradun litzateken Datuen Babeserako Euskal bulegoa.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.

LEIAR
KRISTALDEGIA

ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Jauregi
TOLDOAK
BEASAIN
943 88 02 43 - 943 88 01 33

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA
Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak
Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxe: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.
BEASAIN


Zape elkarteak, uztailaren 3an inauguratuko du Pottoka gunea Zaldibian: jatorrizko pottokaren erakusleihoa

Zaldibia Aralar Pottoka Elkarteak (Zape) Pottoka gunea inauguratuko du Zaldibian uztailaren 3an. Lau hektareako lur sailean pottokak bertatik bertara ikusi eta panelen bidez beraien ezaugarriak ezagutzeko aukera izango da. Aitor eta Mikel Iraetarekin izan gara proiektuaren berri izateko.

Artxabal izena du Pottoka gunea dagoen inguruak. Jende askorentzat Akapulko bezala ezagunagoa den Olako-sail inguruan dago gunea.

Larunbatean, uztailak 3, goizeko 11,30etan izango da inaugurazio ekitaldia. Bertan Pottoka gunea aurrera eramaten lagundu duten guztiak izango dira gonbidatuak. Pottoka munduan dituzten hainbat lagun ere bertan izango dira, Gipuzkoakoak, Iparraldekoak eta Bizkaikoak. Hauei denei prestatu duten Pottoka gunea erakutsiko die eta txalaparta eta trikitixa-ekin jai txiki bat izango da.

Zape-koek ikusten zuten lanean ari zirela, arraza hobetzen ari zirela, baina, jendeak ez duela horren berri. "Beraz, alfer-alferrik ari ginen lanean. Jendeari gure lanaren berri emateko eskaparate baten beharra ikusten genuen". Udaletxearekin eta Aralar natur parkekoekin harremanetan jarri ziren eta egokia iruditu zitzaizen proiektua. Udaletxean 10 urtetarako te-



Informazio panelen bidez pottokei buruzko zehaztasunak azalduko dira.

rrenoa utzi die eta bertan jarri diren panelak eta materiala natur parkekoek jarri dituzte. "Denon arteko elkar lana

izan da. 4 hektarea inguruko lur saila da. Ez da handiegia baina nahikoa dela uste dugu", dio Mikelek.


Pottokak

Duela urte batzuk Iraeta anaiek behor bat erosi nahi zuten, pottoka bat erosteak pentsatu eta zaldi pinto bat erosi zuten. Diputazioan informazioa eskatu eta jakin zuten benetako pottoka ez zela pintoa, beltza baizik. Orduan Gipuzkoan ia ez zegoen pottokarik, Diputazioak 20 bat zituen eta beste hainbat partikularrek 10 bat zituzten. Iparraldean ere uste baino gutxiago zeuden, nahasketa handia baitzegoen. Bizkai aldean, Enkarterrietan eta mendi galduetan geratzen ziren bakarren batzuk.

1997an erosi zituzten lehen Pottokak. Zaldibiako beste lagun batzuk inguratu zitzaizkien eta 6 lagun artean sortu zuten Zape elkarteak. "Garai hartan genituen pottokek eta oraingoek ez duten zerikusirik. Hasierako haiek haragitako zaldiekin gurutzatutakoak ziren eta pixkanaka zaldi hobeak erosi eta arraza hobetzen joan gara. Morfologikoki egokienak direnekin geratzen gara eta besteak kendu, geroz eta pottoka hobeak lortuz. Pottoka gutxi dagoenez, pottoka bezala onartzeko, arraza bereizgarrien %65a izan behar

Pottokak bertatik bertara

Jendeak pottokak bertatik bertara ikusteko lekua izango da. Normalean, zaldi mota hau mendian aske ibiltzen da. Gainera, bertan egongo direnak arraza garbienekoak izango dira, jendeak benetako pottokak nolakoak diren ikusi ditzan. Informazio panelak ere ikusgai egongo dira; bertan azalduko da zer den pottoka, zein ezaugarri dituen... Sarrera irekia egongo da eta barruan ibilbide bat egongo da nahi duenak egiteko aukerarik. "Sarrera libre den arren esan beharrik ez dago bertaratzen direnei errespetua eskatuko zaiela, bai animalieki-ko eta bai inguruarekiko", azaldu digu Aitorrek.



Argazkia: Iñaki Gurrutxaga

dute. Zape-ren eta Gipuzkoako elkartearen asmoa ehuneko hori igotzen joatea da, geroz eta pottoka 'garbiagoak' lortzea. Esaterako gure pottoka batzuk %80tik gora dabilta. Pottoka nolakoa den orain ikusten da, ez hasieran genituenekin", azaldu digute.



Zape elkartean 6 lagun ari dira borondatezko lanean. Lortzen duten diru guztia, subentzioetatik edo pottokak saltzetik, berriro bertan inbertitzen dute, promozioan, pottoka berriak erosten... Argazkiak: Iñaki Gurrutxaga

Pottoka bakoitzak lepoan zinta bat eramango du, pottoka amei zinta laranja jarri die, moxalei horia, zikiratutako koei beltza... Hori dena panelan azalduko da.

Bisita gidatuak eta egiteko aukerarik ez dute ikusten, "Iparraldean bada bisita gidatuak egiten dituzten pottoka gune bat, eta urtero milaka bisitari izaten dituzte. Hemen, oraingoan, ezinezkoa ikusten dugu hori egitea".

ZAPE elkartea

Zape-n 6 lagun ari dira borondatezko lanean. Lortzen duten diru guztia, subentzioetatik edo pottokak saltzetik, berriro bertan inbertitzen dute, promozioan, pottoka berriak erosten... "Guk bertatik ez dugu dirurik jasotzen eta uste dugu horrela hobe dela, askoz ere objektiboagoak gara gure lanean. Gipuzkoako

elkarteko bileretan gu gara altruistenak, komertzializazioari garrantzi gehiegi ematen ez diegunak. Gainontzeko kideek nahiko harrituta begiratzen digute, ez dute gehiegi ulertzen zertan ari garen", azaldu digute Iraetatarrek.

Pottokak Gaztelu mendian ibiltzen dira, Zaldibiako herri lurretan. Aske daude baina ez dira gorago, Aralar aldera, igotzen. Aralarren ibiltzen diren haragitarako zaldiekin gu-

rutzatzea ez da komeni, arraza ez nahasteko. Pottokaren ezaugarriak nagusia gogorak izatea da. Hemengo mendietara eta klimara egokituak daude, horregatik egokiak dira mendiak garbitzeko.

Moxalak ere kontatuta 35 buru dituzte. Denei Aralarko leku izenak jartzen dizkiete. "Lehen denak izenez ezagutzen genituen eta oraindik bereizten baditugu ere, denek izena gogoratzen lana izaten

dugu. Geroz eta berdinagoak dira denak".

Momentuz pottokak haztera dedikatzen dira, baina, bi badituzte hezita. "Nahiko ondo ibiltzen dira, bat odol biziakoa da, baina, ondo moldatzen gara beraien ganean. Asmoak badira pottokei irtenbide berriak aurkitzeko, adibidez, hipikarako balio dutenak horretarako heztea. Horretarako hezitzaileak behar dira, pottokak ditugunoi zaldiak erosi hezi eta beraiek saldu ahal izateko. Hori lortu ahal izateko Gipuzkoako elkartea diputazioarekin harremanetan ari da. Asturias aldean asturkoia izeneko zaldi arraza dago, berez pottokaren berdinak dira. Biak ere atlantikoko zaldi motak dira, familiakoak. Asturkoiekin lortu dute hipikarako erabiltzea eta guk uste dugu pottokak ere balioko dutela", diote Zape-koek.

Pottokak Zaldibian

Zape-koek adierazi dutenez, pottokak lehen ere baziren Zaldibian. "Herriko zahar batek esan izan digu etxean bazutela pottoka bat, baina debekatua zegoela mendira botatzea. Guardia zibilak etortzen omen ziren, eta zaldiak hainbesteko haragirik ez bazuen ipurdian edo halako neurrira ez bazen iristen ez omen zuten mendira eramaten uzten. Dirua emateko haragitarako zaldia behar zuen eta beste zaldi arraza batzuk ekarri zituzten, pottokekin nahastuz. Horrek ekarri zuen pottokak desagertzea. Orain gu berreskuratzeko ahaleginean ari gara".



"LURRA"

Naturako zerbitzu turistikoak
J.Ramón Agirre "Márron"
Tel. 943 18 02 53
615 781 287
E-mail: lurra@pirineum.net

www.pirineum.net Pirinioak pausoz pauso

Murgil zaitez inguru paregabe honetan, aditu eta natur maitaleen laguntzaz

Gainez gain, itsasotik itsasorako zeharkaldiak

1. Mediterraneo - Banyuls - Eyne (7 etapa) • 2. Eyne - Tavascan (7 etapa)
3. Tavascan - Pineta (7 etapa) • 4. Pineta - Belagoa (7 etapa)
5. Belagoa - Hondarribi (7 etapa)



V. Aizkorriko Lagunen Eguna ospatuko da uztailaren 4an, Zegaman

Mendi maratoiaren antolatzaileei esker ona azalduko zaie



Ohi bezala, uztaileko lehenengo igandean, uztailaren 4an, ospatuko dute zegamarrek, Aizkorriko Lagunen Eguna. Laugarren edizioa izango du aurten. Azken bi urteetan Zegama-Aizkorri mendi maratokia egun honetan jokatu izan bada ere, aurten, Munduko Koparako proba izanik, maiatzaren 23ra aurreratu behar izan dutenez, ez da lasterketarik izango. Dena den, Zegaman eta Aizkorri izango da zertaz gozatua.

Egitaraua

06:00etan: Zegamako plazatik Aizkorriko mendi ibilbidearen irteera Amezti Mendi Elkarteko gidaritzapean.

08:00etan: Zegamako plazatik, autobusez Apeaderoraino eta hemendik Sancti Spiritura oinez, Amezti Mendi Elkarteko gidaritzapean.

10:30ean: Meza Sancti Spirituko basilizan, Iñaki Aranzadik emana.

11:00etan: Hamaiketako, txorizo ogitarteko eta edaria, bertara hurbildu nahi duten guztientzat.

12:15ean: Sancti Spiritutik Zegamarako jaitsiera lagun artean.

13:45ean: Erromerian datozenak trikitilariekin kalejiran sartuko dira herriko plazaraino.

15:00etan: Bazkaria herriko pilotalekuan. Bertsolariak eta trikitilariak izango dira giroa alaitzen.

18:00etan: Herriko kaleetan erromeria erraldoi eta buhhandiekin.

Aizkorri, Zegama, bere inguruko naturguneak eta mendizaletasuna maitatzen duten lagunen festa. Horrela definitzen dute zegamarrek Aizkorriko Lagunen Eguna.

Laugarren edizio honetan, Zegama-Aizkorri mendi ma-

ratoiko antolakuntzan lan egin zuten bolondresei errokonozimendua eskainiko zaie, guztiak ere herri bazkarian elkartuz. Eguerdiko 3etan izango da bazkaria. Goiko koadroan duzue eguneko egitarau osoa.

lues rothers
BEASAIN

Zegamako Ostatua
taberna, jatetxea, logelak
San Martin, 3
Zegama
Tel.: 943 80 10 51

BIKOTEENTZAT ESKAINTZA BEREZIA
GAU BATERAKO
LOGELA, AFARIA,
GOSARIA ETA BOTEILA
BAT TXANPAIN
BIKOTEKO: 80 euro

Autowag, s.a.
943 888 254 943 888 266 Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

KAMIXETA ESTANPAZIOA FOTOKOPIAK KOLORETAN
943 02 73 53 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 **BEASAIN**

'Zatoz jolastera uda honetan', Zumalakarregi museora eta Igartubeiti baserrira Jokoak eta tailerrak antolatu dira 7 eta 12 urteko gaztetxoentzat

Oporretan dauden haur eta gaztetxoentzat eskaintza berezia prestatu dute Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak eta Ezkio-Itsasoko Igartubeitia baserriak: 'Zatoz jolastera uda honetan' kanpaina. Gure kultur oroimenenari buruzko tailerrak prestatu dituzte.



Udaleku irekietan parte hartzen ari diren haur eta gaztetxoentzako aukera bat gehiago da Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak eta Igartubeiti baserriak eskaintzen dutena. 7 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzako eskaintza da. Ekainaren 29tik abuztuaren 30era, asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara, ekimen ezberdinak burutu litezke Ormaiztegin eta Ezkio-Itsason.

Zumalakarregi museoa

XIX. mendean 'Bizi' Tailerra izango da. Taldeka parte hartzeko jolasaren bidez, XIX. mendean Euskal Herriak jasandako aldaketa bortitzak ezagutzeko, ilustrazio desberdinak erabiliz, pertsonaia ezagunak, garaian garaiko arropak eta komunikabide gaiak landuko dira.

Igartubeiti baserria

'Garai bateko baserrietako

soinu eta usainak' tailerrean, umeek taldeka baserrietako tresneria, animaliak... bereiztu beharko dituzte soinu eta usainen bitartez.

2,5 euro kostatuko da pertsonako. Prezio honetan eskaintza hauek sartzen dira: bi museoetarako sarrera, tailer dinamizatuak eta museo bate-tik bestera joateko garraioa. Izan ere, museo batetik bestera joateko, Irizar kooperatibaren eta Ormaiztegiko Udalen laguntzaz, autobus zerbi-

tzua eskainiko zaie haurrei.

Beste ekintza osagarri batzuk egiteko aukera ere izango da Ormaiztegin, igerilekua, parkea eta pilotaleku estalia baitaude bertan.

Iazko esperientzia

Iazko udan ere Zumalakarregi museoak bisita bereziak antolatu zituen udaleku irekietako eta elkarreetako umei zuzenduak. 1.300 haur hurbildu ziren Ormaiztegiara.

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE
Pedro Jose Landagutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. BEASAIN

ZUZENKI
A HOLKULARITZA

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Elosegi, 16 LAZKAO

Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa

e txekin
www.txekin.net

m
Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

BIOK ZERBITZUAK, S.L.
Enpresetako aholkularitza orokorra

www.biokzerbitzuak.com
943 88 44 00 Goierri, 12 ORDIZIA

'Ingurumen eskuliburua' kaleratu du Txindoki-Alkartasuna Institutuak

Ikastetxeko ingurumen kudeaketarako sistema laburbiltzen du

Beasaingo Txindoki-Alkartasuna Institutuak 1999an Ingurumen Kudeaketa sistema jarri zuen martxan. Antzindaria izan da Txindoki-Alkartasuna eta beste ikastetxeak Ingurumen Kudeaketa Sistema ezartzera animatu nahi ditu eta horretarako, Ingurumen eskuliburua' kaleratu du, cd-an.

Ingurumen politika ikastetxearen estrategian sartu du Txindoki-Alkartasuna Institutuak, ISO 140001 arauaren arabera. Kutsaduraren prebentzioan arduratsu jokatzuz, garapen jasangarriko ingurumenaren kalitatea babestuz, etengabeko hobekuntzak kontuan izanez, bideratu ditu Txindoki-Alkartasunak bere ekintzak eta zerbitzuak. Horretarako ikastetxeko jardueretan parte hartzen duten pertsonen guztiaren berri ematen zaie eta formazio eta sentsibilizazio egitasmoak garatzen dira.

Material berezia prestatu behar izan dute horretarako, antzindariak izan baitira ingurumen politika ikastetxera eramaten. Orain, egindako la-



Ekainaren 22an Beasaingo Igartza jauregian egin zen cd-aren aurkezpena. Josu Agirre Institutuko zuzendariak dioenez, "Igartza jauregia, garapen jasangarriaren adibide delako". Cd-aren aurkezpenean Institutuko ordezkariak gain, Patxi Plazaola Beasaingo alkatea eta Juanjo Mugerza Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Berrikuntza Teknologikoetarako zuzendaria izan ziren.

na, gainerakoen esku jarri nahi izan dute.

'Ingurumen eskuliburua'

Txindoki-Alkartasuna ikastetxeak ISO 14001 arauaren arabera Ingurumen Kudeaketarako Sistema ezartzeko erabili duen dokumentazioa aurkeztzen du. Paco Ceña, Ana Albisu, Paki Aseginolaza eta Mila Zelarain irakasleek egin dute 'Ingurumen eskuliburua' cd-a. 500 ale kaleratu dira eta lau eurotan salduko da.

Egindakoaren adibidea

Ikastetxeko paperaren kontsumoa, paper birziklatuaren kontsumoa, paper kontsumoa partaide kopuruko, toner eta kartutxo kontsumoa, garbiketako produktuen kontsumoa, laborategiko produktuen kontsumoa, Batxiler Artistikoko produktuen kontsumoa, ordenagailu kopurua, argi artifiziala duten instalazioen azalera, berogailua duten instalazioen azalera, gasolioaren kontsumoa, elektrizitatearen

kontsumoa, energiaren kontsumo guztia, uraren kontsumoa, sortutako hondakin arriskutsuen kantitatea, sortutako paper hondakinaren kantitatea, sortutako fluoreszenteen kantitatea eta hondakin arriskutsuen kudeaketaren kostea aztertu eta ebaluatu ondoren, kontsumoak murrizteko hainbat ekintza egiten dituzte. 2003-2004 ikasturtean esate baterako, elektrizitatearen, paperaren eta produktu kimikoen eta pinturaren kontsumoa %3ak murriztea izan dute helburu.

Ur kontsumoa adibidez, litro eta erdiko botilak zisternetan sartuz murriztu dute. Berogailuaren kontsumoa murrizteko berriz, ikastetxeko tenperatura aztertu eta berroa aurrezteko neurriak aztertu dituzte. Pasoko guneetan argiaren beharrak aztertu eta beharrezkoak ez diren bonbikak eta fluoreszteak kendu dituzte.

Dena den hori baino garrantzitsuagoa dena, ikasle, irakasle eta langileen ingurumenarekiko jarrera hobetzen egindako lana da. Sentsibilizazioa. Azken batean, ingurumen jarrera onak erabiliz ohiko praktikak hobetzea baita Ingurumen Kudeaketa Sistemaren helburua.



**RENAULT
LAZKAO
GARAJEA**

☎ 943 882 442 / 943 888 901
Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea. 3

ORDIZIA

- Mintxo hotz eta beroak
- Ogitaratekoak

Goierriko museoa Ordizian kokatuko da, konpondu berri duten Barrenetxean *Elikadura eta Gastronomia museoa ere bertan egokituko da*

Ez da berria Goierriko turismoaren alde egindako apustua. Beste aurrerapauso bat egingo da orain, Goierriko Interpretazio Zentroa irekita. Ordizian kokatuko da, berri berri duten Barrenetxea etxean. Goierriko turismo bulegoa, Goierriko museoa eta Elikadura eta Gastronomia museoa kokatuko dira bertan.

Ordizian, Barrenetxea etxea berritzeko lanak amaitu dituzte eta orain edukiz janzteko garaia iritsi da. Bi edukitan banatuko da Barrenetxea: Goierriko Interpretazio Zentroa, hau da, turismo bulegoa eta Goierriko museoa; eta Elikadura eta Gastronomia museoa.

Bi proiektuak ere antzindariak dira, Goiturreko kide den Nikolas Osinaldek argitu duenez. “Euskadi mailako eskualdeko lehenengo interpretazio zentroa izango da Ordiziakoa. Gastronomia museoa ere, punta-puntako museoa izango da, Estatu mailan, Gironan dago beste bakar bat”. Beste berrikuntza bat ere izango da Ordizian:



Ordiziako Barrenetxea herritarrek bisitatu ahal izan dute egunotan.



turismoaren arloa ere teknologia berriak txertatuko baitira.

Ekimen honekin, “Ordiziak dituen bi osagai, Ertaroka eta gastronomia, Barrenetxean biak uztartuko dira. Hau da, ertaroko etxe batean, gastronomia museoa joango baita”, azpimarratu du Osinaldek.

Guztia abendurako bukatuta egotea aurreikusten bazen ere, bi hilabeteko atzerapena izango du Barrenetxeak.

Goierriko museoa

Barrenetxearen beheko solairuan, eskualdeko turismo bulegoa joango da. “Horrek esan nahi du, Goierriko taldean datozenak bertatik bide-

ratuko direla. Aretu balioanitz bat egongo da bertan. Ordiziaren harresia bertan ikus daiteke”, zehaztu du Osinaldek.

Lehenengo solairuan, Goierriko museoa jarriko da. Bost atal izango ditu museoak: festak eta ohiturak, artea eta kultura, natura, herriz herri eta azkenik, Barrenako parkeari begira, Goierriko ibilbideak egongo dira ikusgai.

Naturaren atalean, esaterako, baso bat irudikatuko da. Bideo erreal bat eta paseo birtual ere jarriko dira. Turismoaren arloa ere iritsi dira teknologiak berriak. Herriz herri atalean, zoruan, Goierriko mapa bat egongo da.

Gastronomia

Bigarren solairuan eta ganbarazpikoan, Elikadura eta Gastronomia museoa kokatuko da. Edukiak oraindik erabat zehaztu gabe badaude ere, Nikolas Osinaldek aurreratu dizkigu Gastronomia museoren nondik norakoak: kontinente bakoitzean zein janari eta elikagai erabiltzen den, elikadura piramidea, ondo jatea osasuna dela, bertako produktuak...

Ordiziak Elikadura eta Gastronomia museoa egiteko arrazoia zein izan duen zehaztu du Goiturrekoak. “Ordizian azoka egiten delako eta bertako produktuak ekoizten direlako. Gastronomia gero eta garrantzitsuagoa delako”.

o s k a r b i

o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04
kale Nagusia 34 BEASAIN

Tel. 943 88 19 44
kale Nagusia 25 ORDIZIA

Sandra

Ileapaindegia


Tel.: 943 087 056

Garagarza plaza 10 ORDIZIA

Herri Plataformak

"Ahalegin handiak egin dituzte gu udaletatik bidaltzeko. Baina ez dute lortu, ez eta lortuko ere"

Iazko udal hauteskundeetarako 12 herri plataforma osatu ziren Goierrin, "abertzale eta ezkertiarrez" osatuak. 12 horietatik 10 legez kanpo utzi zituzten, Olaberriakoa eta Gabiriakoa izan ezik. Urtebete pasatxo den honetan, Olaberriako Herri Plataformako zinegotziek, Joseba Alonsok eta Ainhua Goiburuk, "autodeterminazio eskubidearen defentsan oinarrituriko proiektu abertzale eta ezkertiarra" defendituz lanean ari direla azpimarratu nahi izan dute. "Ahalegin handiak egin dituzte, bai espainiar faxistek, baita ilegalizazioaren aurka daudela dioten horiek ere, gu udaletatik bidaltzeko. Baina ez dute lortu ez eta lortuko ere".



Lehenengo urtearekin gustura

Joseba Alonso eta Ainhua Goiburu, Olaberriako udaleko zinegotziak dira, Herri Plataformaren izenean. Lehenengo urteko esperientziarekin pozik daude. "Beste zinegotziekin batera lanean aritu gara. Lehenengo urte honetan, esperientzia hartzen aritu baikara. Arau subsidiarioen aldaketa, gazteei begira egitekoak diren etxebizitzak eta industrialde berria dira momentu honetan Olaberrian gai garrantzitsuenak", zehaztu du Ainhua Goiburu.

"Duela urtebete pasatxo, PP eta PSOeko herri honen zapalkuntzan beste aurrerapauso bat gehiago eman zuten. Ilegalizazioarena. Euskal Herri osoan, 225 plataforma ilegalizatu zituen estatuak, autodeterminazio eskubidearen defentsan oinarrituriko proiektu abertzale eta ezkertiarra, gizartetik, eremu politikitik eta instituzionaletik desagartarazteko asmoz", adierazi du Joseba Alonsok.

du olaberritarrek.

Egoera horren ondorioz ere, herri plataformak lanean ari direla azpimarratu dute Alonsok eta Goiburuk. Goierriren kasuan, Goieki garapen agentzian badute ordezkartza, adibidez. "Goierriko gaietan gainean egon beharra daukagu".

Udaletan, batzordeetan parte hartzen dute, euren ekarpenak eginez. "Udal mailan egotea oso garrantzitsua da. Herri bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta lan egin behar da". Herri plataformek uste dutenez, "batzordeak oso garrantzitsuak dira, herritarren parte hartzea errazten dutelako. Erabakiak batzordeetan hartzea nahi dugu", azpimarratu dute. "Herriko arazoek kezkatzen gai-

tuztelako eta beste herri ere du bat posible delako, herriarengandik gertu egoten saiatu gara. Gure herriarentzat badiugu ideiak, alternatibak eta ilusioak eta bide horretatik ez gaituzte aterako, ez Madrilgo faxistek, epaileek, mota guztietako poliziek, ez eta egoera honetaz bere poltsikoak gizentzea bete helbururik ez duten horiek ere", diote.

"Inoiz baino txertatuago"

Ekainaren 13ko Europako hauteskundeetan Herritarren Zerrendak lortutako botoen arabera, "inoiz baino txertatuago dago proiektu ezkertiar abertzalea Goierrin. Urtebetean hirugarrenez, hauteskunde batzutura legez kanpo jardun behar izan ere, inork baino galera txikiagoa izan du. Horretaz aparte, ezker abertzalearen hautua, Goierriko 8 herritan da lehen indarra. 8 herritan ilegalizatu-tako zerrenda batek irabazteak gordin ikusarazten du herri honetako errealtate politiko gordina".

"Hala ere, herritarren babes oso mardula jaso zuten plataformek, maiatzaren 25eko hauteskundeetan. Inon aurrekaririk ez duen egoera baten aurrean, 170 mila bozka jaso zituzten legez kanpo utzi nahi izan zituzten plataforma horiek, 700dik gora zinegotzi hautatutarako eskubidea ematen zutenak. Iazko ekainaren 14an, ordea, aurretik ilegalizazio hori gaitzesten zuten alderdiek (EAJ, EA, Aralar eta EB), oso gogo onez hartu zituzten herri borondateari lapurtutako aulkiak, beraien moral bikoitza begi bistan utziaz", gaineratu

"Inoiz baino txertatuago dago proiektu ezkertiar abertzalea Goierrin"

Sanjoanak arrakastatsu

Beste urte batez, jai giro politoan ospatu ziren San Joanak. Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala, Legorretan ere San Joan bezperan, ekainaren 23an festa giroa nagusitu zen ohiko suaren inguruan.

Arratsaldeko 8etan udalak zahagi ardoa eskaini zuen herriko plazara hurbildu zen ororentzat. Une berean, Erromeria izan zen 'Solano Musika Eskolako ikasleak' trikiti-

larien eskutik. San Joan sua, berriz, iluntzeko 9etan piztu zen. Ondoren, herriko Dantzari gazteek 'Agurra', eta 'San Juan Dantza' dantzak, eta 'San Juanene Kantaita' abestiak eskaini zituzten.

Jarraian, orain gutxi sortu zen abesbatzak 3 abesti abestu zituen: 'Xalbadorren heriotzean', 'Habanera' eta 'San Juan'. Azken hau herriko Musika Eskolako haurrek lagunduta.



Ludoteka

Astelehenean hasi zen 3 aste iraungo dituen ludoteka. Ekainaren 28an hasi eta uztailaren 16 bitarte izango da hain zuzen ere. 57 haurrek hartuko dute parte, eta besteak beste, hainbat irteera egingo dira.

Udal liburutegia

Uztailako hilabete osoan goizez egongo da irekita udal liburutegia, 9,30etatik 12,30etara bitarte. Abuztuaren 4tik irailaren 6era, berriz, itxita egongo da biak barne.

Legorreta: Bizitza ibaiaren biragune batean

'Legorreta: bizitza ibaiaren biragune batean', Antxon Aguirre Sorondo historialariak idatziriko liburua eskuratu nahi duen edonor, pasa dadila udaletxetik, bertan baitaude hainbat ale interesa duen ororentzat.

Lehen Hezkuntzako liburuak

2004-2005 ikasturtean, Ugao Herri Ikastetxeko haurrek erabili behar dituzten liburuen zerrenda udal liburutegian dago. Liburu hauek, Lehen Hezkuntzako 1.º mailatik hasita 6. mailara bitarteko haurrek erabiliko dituztenak dira.



Jubilatu eta pentsionistak Karrantzara

Herritarrei jakinerazi nahi zaizue aurten uztailaren 17an izango dela Jubilatu eta Pen-

tsionisten bidaia. Oraingo honetan Bizkaia aldera egingo da txangoa eta bertako Enkar-

Joseba Apaolaza Segurako dantza txapelketan

Irati Imaz lazkaotarra lagun zuela, Joseba Apaolaza herritarrek ekainaren 20an Seguran jokaturako Euskal Herriko dantza txapelketan parte hartu zuen. Hamaikagarren postua egin zuten.

terrietako eskualdea ezagutu ahal izango da.

Bidai honetako xehetasunen berri emanez eta izene-

mateko egin beharrekoa azalduz, orri informatibo bat bidaliko zaizue aramar guztiei zuten etxeetara.



Udaleku irekiak

Oporrak hasi berriak dituzten herriko haurrentzat udaleku irekiak antolatu ditu uda honetarako udalak. Dagoeneko astebete daramate 2 urtetik 12ra bitarteko 26 neska-mutikok mota guztietako aktibitateak egiten, lagun-taldean eta herriko ingurunean egin ere, kanpainaren izatearen helburuak betetz. Euskal udalekuen

ordezkagarri ere izan nahi du lehendabizikoz burutu den egitasmo honek, lekuri aurkitu ez duten edo joan nahi izan ez duten txikiei alternatiba eskainiz.

Hiru begiraleren esku dago uztailearen 23 arte zabalik izango den udaldiko ekintzen antolaketa eta gidaritza. Idoia Oiartzabal ormaiztegiarrak

● **Liburutegi zerbitzua berriz martxan da**, Amaia Larrañaga arduradun berriarekin. Asteartero 4etatik 6etara izango da ordutegia, liburuak bertan kontsultatu nahiz mailegatzeko.

● **Honako haur hauek bataiatu ziren** ekainaren 27an: Xabier Aldanondo, Jon Arratibel, Antxon Leatxe, Laura Leatxe, Naroa Murua, Gaizka Peralto eta Mariñe Urkiola.

● **Andamaritako egitaraua asteazkeneko bileran** zehaztu zuen festa batzordeak. Abuztuaren 13an hasiko dira jaiak, DJ Bull, disko festa, Trikitzio, Gari eta Iñaki trikitilariak eta Jose-lu musika taldeak daude hitz emanak.

● Gipuzkoako **Artzaitour gaztaren ibilbide turistikoa** osatzen duten 16 gaztandegietako bat Baztarrika da. Ekimen honekin bisitariak erosi aurretik bertatik bertara ikusi ahal izango dute produktuaren egikera.

● Goimenek jakitera eman duenez, udan ohikoa den bezala **belar bolen plastikoen bilketa** udazkenara arte utzi egin du Sasietak, eta besterik esan arte ezin daitezke plastikoak bilgu-neetara ateratu.

● **KZgunea** uztailean goizetan erabili ahal izango da.

● **Istripuz heriotza**. Etxeberri-Bizkai baserriko Antonio Oñatibia Mandiola, 69 urtekoa, ekainaren 21eko goizaldean hil zen, bezperan Andoain parean autoa bidetik irteten eta ibaira erori ondoren.

txikiaren taldearen ardura dauka, bi, hiru eta lau urteko 9 umerekin denborapasa oparoa egiteko. 5etik 12rako adindunek Jokin Murua eta Jon Murua gazteak izango dituzte dinamizatzaile.

Ekintza ugaritan parte hartzeko aukera ematen du osatu duten programak. Asteagune-

tan, goizero 9,30etatik 12,30etara bilduko dira haurrak, oporraldia aktibitatez aberasteko. Mendi irteerak, txangoak, kirolak, jolas eta jokuak, eskulanak... aspertzeko beta izango da herriko udalekuek faltako den bakarra.

Aimar Maiz



Goierritarra

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zaizkie posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa.: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**



ETXETXO TABERNA

☎ 943 88 28 83
Plaza Nagusia **ORDIZIA**



Koadrila arteko futbol txapelketak 25 urte

1980ko negua zen bi koadrila "poteo" garaian ari zirela eta futbol txapelketa antolatu behar zela Ordizian bururatu zitzaizen garaia. Eta burutik pasa bezala egi bihurtu zuten eta urte horretan bertan Koadrila Arteko I. Futbol txapelketa martxan jarri zen. Harrezkero urtez urte jokatu da eta mende laurdena beteko du aurtengoan.

Urteurren esanguratsu honetarako batzorde berezia osatu da eta otsailetik lanean ibili dira aparteko ekintzak antolatuz. Aipatu batzordea herriko gazte borondateku batzuek osatu dute eta besteak beste uztailearen 10a bitartean zabalik egongo den argazki erakusketa prestatu dute. 25 urte hauetan txapelketan zehar parte hartu duten taldeez osatutako argazkiak, kamisetak, fitxak, txapelak eta bestelako argazkiak ikusgai dira Barrena Kultur Etxeko atarian. Txapelketaren ezaugarri izango den logotipoa ere sortu dute aurreko antolatzaileek (ikus argazkia).

Erakusketaz gain larunbat honetan bertan haurrentzako jolasak izango dira Enparantza Nagusian. Futbola edota

baloia izango dute joko gehienek abiapuntu eta arratsaldeko 5etatik 8etara bitartean luzatuko da ekitaldia. Uztailearen 10a izango da urteurren berezi honi amaiera emango dion eguna. Final handia jokatu da orduan eta aurretik beteranoen neurketa jokatu da. Goizeko 9etan 3 eta 4. postuak erabakitzeke neurketa jokatu da, 10:30ean beteranoena eta 11:30ean finala. Ondoren bazkaria izango da Beti Alai pilotalekuan, aurreko parte hartu duten 200 jokalarirekin. Guztira 350 lagun elkartzea espero dute antolatzaileek. Bazkarian bertan egingo da sari banaketa eta ondoren herriko kaleak giroten saiatuko dira denak.

Jokoan den txapelketari erreparatuz gero final-aurreak dira jokoan. Asteburuan Badago eta Tximistak husna berdindu zuten eta Urbitartek 3 eta 2 irabazi zion Irrintziari. Larunbat honetan berriro ere elkar neurtu beharko dituzte indarrak.

Aitor Calvillo

San Fermin zozketa

Azken boletoak salgai daude oraindik Etxezarreta kaleko Txindoki Tabernan. Bildutako dirua San Jose zahar etxearentzat izango da (sarietarako %75a erabiliko da). Zozketa San Fermin egunean bertan, uztailearen 7an, asteazkena, egingo da tabernan.

Santa Ana jaiak

Uztailean sartu gara jada eta honekin batera Santa Ana herriko zaindaria iritsiko zaigu hila amaitzerako. 17 eta 18a haurren egunak izango dira eta 24, 25, 26 eta 27a, berriz, helduenak. Jaiak gainean ditugula eta Udalak hainbat ohar eman ditu. Koadrila eta elkarteetako ordezkariekin jaiak antolatzeko lehen bilerak eginak daude jada eta gutxi barru koadrilek zerrendak emateko beste bat egingo da. Iazko uztailetik hona ezkondatako bikoteak ere entseguetan dabilta Santanazaleen esku dantzan parte hartzeko.

Haur eta helduen danborradei dagokienez esan gaztetxoek ekainaren 29an hasi zituztela entseguak eta helduak uztailearen 6an hasiko direla (Santa Anan iluntzeko 9etan). Helduen danborradan parte hartu ahal izateko izena eman beharko da aurretik. Danbor-joleen zerrenda Mendizaleak Elkartean egongo da eta Upel-joleena, berriz, Larrun-Arri Elkartean. Izen emateko orduak arratsaldeko 7etatik 9etara.

Garagardo festa

25 garagardo mota desberdin dastatzeko aukera asteburu honetan. Errugby Taldeak antolatu du aurtengoan ere eta ez dira faltako txerri-ukondo, saltxitxa, oilasko, pastela eta abarrak. Garagardoak zuriak, horiak, gorriak, beltzak eta alkoholik gabekoak eta gaztetxoentzat freskagarriak ere izango dira. Beti Alai pilotalekuan izango da garagardo festa, bai barruan eta baita kanpoaldean ere "karpa" jarriko baita. Errugby irudiak eskainiz pantaila erraldoia ere izango da pilotaleku barruan. Uztailearen 1, 2, 3 eta 4an, arratsaldeko 6etatik iluntzeko 12ak bitartean garagardoarekin, beraz, hitzordua Beti Alai pilotalekuan.

Ordizia mantendu

Futbol denboraldia amaitu dela hilabete pasa bada ere prefereente mailako taldea eta errejonalekoa asteburura arte kezkatu izan dira. Izan ere, goren mailako taldeak azken laugarren amaitu zuen eta hirugarren mailan gertatu diren igoera-jaitziera batzuen ondotik mantentzea lortu dute. Ondorioz bigarren taldea ere errejonaleko lehen mailan izango da datorren denboraldian.

Monografia historikoa

2006 urtea iristearekin batera Ordizia herriak 750 urte beteko ditu. Urteurren esanguratsu horri begira Udalak eta Eusko Ikaskuntzak Ordiziako monografia historikoa burutzeko beka jarri dute martxan. Euskaraz edota gaztelaniaz egin daiteke lana eta hautagaiak aurkezteko epea uztailearen 9an amaituko da. 8.500 euroko beka izango da eta urte betean egitekoa.

Kiroldegian udako kanpaina martxan

Udako oporrekin batera, eskaintza berezia antolatu du Antzizar kiroldegiak adin guztiei begira. Beasaingo Udalak, bere udal kirol erakundearen bitartez Uda 2004 kirol jardueren kanpaina antolatu du. Helburua, urteko garai berezi honetan, herritarrek eskatzen dituzten ekintza fisikoak eskaintzea da. Guztien artean, garrantzitsuenetakoak ditugu, eskolameentzako antolatu diren kiroltako udalekuak. Uztailean zehar txanda desberdinetan izango dira. Adin bakoitzerako talde eta ekintza desberdinak antolatu dituzte.

1999-2000an jaioak: Kolonia Txikia (igeriketa eta jolasak).

1996-1998an jaioak: Kirol kolonia (igeriketa, tenisa

eta jolasak).

1992-1995an jaioak: Eskaintza zabalagoa izango dute. Kirol festa (igeriketa, tenisa eta jolasak). Kirol abentura (eskalada, arkua eta piraguismoa).

1986-1991n jaioak: Abentura naturan (eskalada, arkua eta piraguismoa).

Ikastaro bereziak ere antolatu dira: igeriketa, tenisa, piraguismoa, txiki-fitnesa, patinaia, zaldiketa eta gazte aerobika.

Gazte eta helduei zuzendurik berriz, tenisa, piraguismoa, aerobika, zaldiketa, eskalada, Cardio sacBox, Patinaia, igeriketa arkurzko tiroketa antolatu dituzte.

Estaligabeko igerilekuak

Irailaren erdira arte irekita izango ditu ateak estaligabeko igerilekuak 12:00etatik 20:00etara. Sarrera, 18 urtez behetikoek 2 euro eta gainetakoek 4 euro ordaindu beharko dute. Abonua hartuz gero merkeago irteten da. Bi aukera eskaintzen dute gainera. 'Plus' ateratzen dutenek, estaligabeko igerilekuaz gain, kiroldegiko instalazio guztiak erabiltzeko aukera eskeintzen du. 'B' abonua ateraz gero berriz, Estaligabeko igerilekuak eta kiroldegiko barruko igerilekua erabiltzeko aukera eskaintzen du. Abantaila izango dute gazte txartela dutenek, 60 urtez goitikoek, umeek eta abonua familiarra ateratzen dutenek.

Nekane Altuna

"Abiadura Handiko Trenak Beasain zeharkatuko du"

Ekainaren 16an, Abiadura Handiko Trenaren Aukako Asanbladak hitzaldia eskaini zuen Udaltxeko Batzar aretoan. 'Euskal Y' proiektuaren ondorioz, Beasain aldenik alde gurutzatuko duela adierazi zuten. Bi biadukto egingo lituzkete, Arriaranen, Ondarre baserriaren inguruan eta Salbatorren Ittola baserriaren inguruan. Hortik aurrerakoa, tunelen bidez gurutzatuko luke, 2.750 metroan. Tunelak egiterakoan sortuko diren hondakinak uzteko, bi hondakindegia aurreikusten dira. AHTren aurkako Asanbladako Mikel Alvarezen esanetan, "oso eraso gogorra da ingurumenarentzat. Obra erraldoiek eta, ondorioz, azpiegiturek, baldintza exigenteak eta zorrotzak inposatuko dituzte".

Inpaktu larriak emango direla aurreratu dute, ur, paisaia, nekazaritzako ustategi, landabide, landaretza eta abarretan. Horrekin batera hainbat arrazoi ere badituzte, AHTren aurka egoteko: "hondakin ugari bota beharko dira, 5.000 futbol zelai metro bat materialez estaltzeko. Trenaren proiektuan bertan larrizat jotzen diren zaratak jasatea. Inpaktuak urrakortasun handiko edo oso handiko akuiferoen gainetik pasatzean, gutxienez 31 kilometrotan. Gutxienez 3.000 milioi pezeta inbertitu beharko dira trenbide berriaren kilometro bakoitzeko. Gure diruarekin, egingo den obra batek emango dituen irabaziak pribatizatzea, enpresa pribatu bat izango baita trenaren kudeaketaz arduratuko dena gure dirua trenbidea egiten gastatu ondoren. AHTren erabiltzaileek gaur egun errepidetako garraio publikoa erabiltzeagatik ordaintzen dutena baino %100 gehiago ordaindu beharko dute. Tarifa auek pribatiboak izango dira herrietar gehienentzat. Paris-Lisboa ardatz ekonomikoaren iraganleku bihurtuko den Euskal Herria zeharkatzea eta moztea, herri gehienek estaziorik gabe eta marjinatuta geldituz".

Gizarte arloan ere kalteak eragingo dituztela aurreratu dute: "epe luzera benetan ondorio kaltegarriak ekarriko ditu, lurralde antolaketa ikuspegi galgarri batetik jorratzen baitu".

Liburutegiaren udako ordutegia

Kurtsoa amaitzearekin batera udal liburutegia itxita izango da arratsalde. Ordutegia 9:00etik 13:30era izango da.

UEUra subentzioak

Udaleko Euskara-batzordeak, 2004ko XXXII. UEUren edizioan izango diren ikastaroetarako nahiz orokorki unibertsita mailako euskarazko ikastaroetarako, dirulaguntzak eskaintzen ditu ikasle euskaldun beasaindarrentzat. Baldintza betez gero, laguntzak, kosturen 2/3koak izango dira. Eskarazko uztailaren 12 bitartean egin behar direla. Udaletxeko harrera-bulegoan edota Euskara-zerbitzuan entregatu behar dira eskaerak.

Frantziako Tourrera Peña Belokirekin

Peña Belokik irteera antolatu du Frantziako Tourreko 12. eta 13. etapak ikustera joateko. Uztailaren 15an irtengo dira 15:00etan eta uztailaren 17an itzuliko dira. Izen ematea Basakana tabernan uztailaren 11 baino lehen.

Santiago Bidea bulegoa

Gipuzkoako Santiago Bide-lagunen Elkartek bulegoa du Beasainen, erromes joan nahi dutenei laguntza eta argibideak eskaintzeko. Elkartek ostegunetan eskaintzen du zerbitzu hau 19:30etik 21:00era Igartzako Belen Ermitan.



Bilera garrantzitsuak Ataunen

Joan den hilaren 18an, bi bilera garrantzitsu egin ziren Udaletxeko areto nagusian. Biak ere, Luis Jabier Telleria, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zuzendariaren ardurapean burutu ziren. Honez gain, Eusko Jaurlaritzako Nekazal Garapenerako zuzendaria, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Europar Batasuneko Programen arduraduna, hiru Foru Aldundietako Nekazaritza Saileko zuzendariak, Europar Batasuneko Nekazaritza Zuzendaritzako Programen Arduraduna eta Espainiako Nekazal Ministerioiko Zuzendaritzako Nekazal Garapenerako Zerbitzu buruak ere parte hartu zuten.

Aipatutako bilera hau 'Leader +' (Europako landa-eremuen garapenerako informazio eta komunikazio teknologiei dagokien) programaren jarraipen batzordea osatzen duena izan zen. Honi esker, joan den urtean Udalak aurkeztutako Wifi sarearen proiektuak diru-laguntzak jasozituen. Wifi sareari esker leku batzuetan antenak jarritz herritarrei zerbitzu berri bat eskaini nahi zaie, besteak beste, internet-aren erabilpen azkarragoa, bideokonferentziak egiteko aukera, herriko emankizunak ikustea... Une

honetan, Joxemiel Barandiaran Eskola Wifi sarean sartuta dago.

Beste bilera Komunitate Autonomoko landa garapenerako planaren jarraipen batzordearen bilera izan zen. Bertan, aurreko bileran parte hartu zuten gain, beste 20 bat pertsona ere egon ziren. Ataungo hurrengo erronka herrian gasa jartzea dela aipatu zen eta aldi berean, batzarkideek 2003 eta 2004ko txostenetan proposatzen diren aldaketak aztertu zituzten. Kontuan hartu behar da, programa honi esker Ataunek azken urteetan dirulaguntzak jasotituela Herri Antzokia, Haurtzaindegia, Kalostra Handiko obrak... aurrera eraman ahal izateko.

Bilerak amaitzean, Wifi sarean probak egin zituzten. Bilerako partaideek Udaletxeko ganbaratik jarraitu zuten eskolako umeen emankizuna. Haurrak eskolatik hitz egiten ari ziren bitartean, ganbaran zeudenek ordenadore portatitilik ikusteko aukera izan zuten. Lehen aipatu bezala, momentu honetan eskola Wifi sarean sartuta dagoenez, azkeneko Eguzki Berri eta Otsoa Irratiko azken saioak ere bertan tartekatuta daude.

Doltza Barandiaran



Eskolako haurrak Saran

Apirilaren 30ean Sarako haurrak Atauna etorri ziren bezala, ekainaren 21ean ataundarrak joan ziren Sarara. 43 ikasle, 6 irakasle eta 3 guraso joan ziren. Egun polita igaro zutela azpimarratu nahi izan zuten guztiek eta datorren urteari ikasturteari begira, trukaketa hauekin jarraitzeko asmoa dutela ere adierazi zuten.

Otso Festa amaiera

Ekainaren 26an, eman zitzaion amaiera aurtengo Otso Festa kultur ekitaldiei. Bitor jatean egin zuten afariarekin itxi zen Otso Festa 2004. Afalostean, urteko kirol ezberdinetako irabazleei sariak banatu zitzaizkien, besteak beste, Ataun Kirol Elkartearen sariak, kirolari saiatuenari dagozkionak, Ataun Avia taldetik Josu Arrondok jaso zuen oroigarria, Bitor Jate-txea taldetik Maialen Sukiari egokitu zitzaion. Urte guztiko jokalari erregularrenak, Xabi Agirre eta Maider Arruabarrena izan ziren. Pilotari elkarteak ere bere sariak banatu zituen, jokalari saiatuenaren saria Jon Ander Albisuk jaso zuen eta erregularrena Jon Arratibel izan zen. Hauek gain, arrazoi batengatik edo besterengatik nabarmendu diren herritarrei Urrezko Otsoa ematen zaie. Aurtengoan, Euskaltel Euskadi txirrindulari taldean denboraldi bikaina burutu duen Dioni Galparsoro, Badaiotz sokatira taldean Munduko Txapeldun izan den Ruth Kaiero eta Tarragonako Nastic taldearekin 2.mailara igotzea lortu duen Egoitz Sukiak jaso dute oroigarria.

Udal liburutegia

Irailera arte udako ordutegia izango du Udal Liburutegiak: goizeko 10etatik 12etara.

Aldazbarrenako atsedeen-lekua

Ataundarrok Herri Bilgunearen deia erantzunez, 27 lagun bildu ziren aurreko igandean Aldazbarrenako atsedeen lekua txukuntzeko. Talde batek zakarrak poltsetan bildu eta zakarrontzi-tara eramateko prest jartzen zituen bitartean, beste talde batek urik ematen ez zuen iturria konpondu zuen, depositua garbitu eta behin-behineko kanila jarriaz. Hamaiketako egin ostean, batzarra burutu zuten. Antolatzaileek aditzera eman digutenez, Aldazbarrenaz gain Ataun herriaren etorkizunean zeresan handia emango duten erabakiak plazaratu ziren. Esan digutenez, txosten bat egingo dute guzti honekin eta Aldazbarrenan berehala burutu beharreko zenbait lanen eskaria udalari egiteko asmoa dute.



Bi Kabin ere zubi berria

Bi Kabi ondoko zubia bota eta berria egiteko asmoa du Eusko Jaurlaritzak. Pasabide berrirako proiektua egin gabe dago oraindik, baina, Jaurlaritzako teknikariek aurreratu dutenez zubiak 5 metroko zabalera izango du eta alde banatan espaloiak edukiko ditu.

Bi Kabiko zubia berritze-ko erabakia, plazan eta Toki Txokon obrak hasi ondoren hartu du Jaurlaritzak. Ursuaran erreka berreskuratu eta uholdeak ekiditeko legeari egokitzeko lanak bi fasetan egiteko asmoa zuten. Lehen-

dabizikoa Bi Kabitik behera, eta bigarrena handik gora. Proiektuan, ordea, Bi Kabiko zubiari buruz ez zen aipamenik egiten. Lanen lehendabiziko fasea egiten hasi ondoren erabaki dute hirugarren zubia bota eta berritzea.

Bitartean, Plazako eta Toki Txokoko zubietan obrak aurrera doaz. Eraikuntza sektoreko langileen grebak eraginda hilabete pasatxo geldirik egondako lanak berriro ere martxan daude.

Xabier urteaga

Kiroldegia

Udako ordutegia dela eta, Zelaako kiroldegia goizetan ere zabalik egongo da uztaillean. Goizetan 10,30etatik ordu batera eta arratsaldetan 6,30etatik 9etara.

Udarako antolatutako ikastaroak ere martxan daude. Bizkarrereko masaje ikastaroan herritar askok eman du izena. Horrekin batera, Gazte Asanbladakoek eskalda ikastaroa antolatu dute. Astelehenetan eta ostegunetan izango da arratsaldeko 6etatik aurrera.

Ikasturtea bukatzeko, ohikoa den moduan triatloia antolatu dute. Uztailaren 23an jokatu da triatloiaren 9. edizioa. Izena emateko epea irekita dago.



Euskara Elkartearen eguna

Illati euskara elkarteak taldearen lehendabiziko eguna ospatu zuen ekainaren 26an. Herriko haurrak marrazkiak eta idazlanak egin aritu ziren, bitartean, soziedatetakoek bazkaria prestatu zuten. Plazan egindako festan, Illati elkarte-ko kamisetak erosteko modua izan zen eta graffiti egileak, elkartearen logotopoa oinarri hartuta lanean aritu ziren.

Eguerdian, 60 lagun bildu ziren arkupean jarritako mahaitan herri bazkaria egiteko. Bazkalondoan, Unama, musika taldeak kontzertua eskaini zuen.

Aldaketak liburutegian

Euskal Herriko liburutegien plan nazionalen parte hartuko du Idiazabalgo liburutegiak. Ekimena irailean jarriko dute marxan. Ordutik aurrera, plan horretara atxikitako Euskal Herriko liburutegietako datu baseak kontsultatu eta Idiazabaldik mugitu gabe, liburuak erabiltzeko modua izango da.

Liburutegian aro berri horretara moldatzeko lanean ari dira. Ordenagailu berria jarriko dute beste liburutegietako datu baseak kontsultatu ahal izateko. Bazkideek, etxeko ordenagailutik kontsultak egiteko aukera izango dute.

Uda kanpaina

83 ume eta 7 begirale ari dira parte hartzen aurtengo Uda kanpainen. Goizetan biltzen dira guztiak 10,30etatik 12,30etara. Jolasa, kirola eta denborapasarako ekimenak egiten dituzte.

Uda kanpainako ekitaldien barruan, uztailaren 9an, ostirala, goizeko 11.30etan San Adrian eguneko pilota txapelketaren finala jokatu da. Benjamin eta Alebin mailakoek jokatu dituzte partidak.

Aizkorriko Lagunen Eguna

Uztailaren 4an, Aizkorriko Lagunen Eguna ospatuko dugu Zegaman. Aurtengoa V. ospakizun eguna izango da eta, aurten ere goizeko 6etan Aizkorria igoera egingo da Zegamako plazatik abiatuta eta 8etan beste mendi irteera bat izango da plazan autobusa hartu Apeaderoraino eta handik Sancti Spirituraino. Bi irteeretan Amezti Mendi Elkarteko partaideak ibiliko dira gidari lanetan; bi irteeretan parte hartutako mendizaleek Sancti Spiritun egingo dute topo, goizeko 10,30etarako, eta bertan nahi duenak Iñaki

Arantzadi apaizaren eskutik meza entzuteko aukera ere izango du. Ondoren Udalak eskainitako hamaiketakoaz gozatu ondoren, Zegamarako bidea hartuko dute ibiltariak, eta bazkari herrikoian parte hartzeko aukera izango dute aurrez izena emana dutenek Udal Kiroldegian. Bertan Eneritz eta Aitor Zabaleta, Oier Irastorza eta Ane Arzikorreta trikitilari eta panderojoelaz gain eta Bittor Agirre bertsolaria ere izango da; arratsaldeko 6etan buruhaundi eta erraldoiak izango dira.

Jubilatuen eguna

Uztailaren 18an Jubilatuen Eguna ospatuko da. Eguerdiko 1ean Meza izango da San Martin Parrokian eta 14:00etan bazkaria eskainiko die Udalak herriko jubilatuei. Bazkarian parte hartzeko beharrezkoa da izena ematea uztailaren 9 eta 10ean, arratsaldeko 5etatik 8ak bitartean Jubilatuen elkartean. Jubilatu eta 60 urtetik gorako pentsiodunek bazkaria dohain izango dute eta talde honetan sartzen ez direnek ere parte ahal izango dute 22 euro ordainduta. Aurten ere, udalak opari ugari prestatu ditu txotx egiteko eta Txomin Garmendia eta Joxe Agirre bertsolariak eta Iturrioz sonujoaleak jarriko dute giroa bazkalondoan.

Ikastaroa adinekoei buruz

Uztailaren 12tik 15era, Liburutegian Adinekoi buruzko ikastaroa emango du 17:00etatik 19:00etara, Amagoia Muruamendiaraz, geriatría eta gerontologian espezialdutako medikuak.

Opor giroa uztailan

Azken urteotako bideari jarraituz, Udalak Kutxaren laguntzaz kontzertu eta antzerki bat antolatu ditu uztailako gau giroak borobiltzeko.

Uztailaren 16an, 'Mugak Zabalduz' folk-jazz fusio-kontzertua izango dugu Unhe Kintetoaren eskutik gaueko 10,30etatik aurrera.

Uztailaren 22an, Udal portikupean, '7 gezur txiki' antzez-lana ikusteko aukera izango dugu 22:30ean.

Udako ordutegiak

Udal Liburutegia uda partean 11:00etatik 13:00etara irekiko. Abuztuan berriz itxita egongo da eta libururen bat behar duenak Udaletxera jo dezake edota 943 801351 telefonora deitu.

Udal Bulegoak, datorren uztailaren 1ean udal bulegoetan



Bost herrien arteko pilota txapelketa

Aurten ere hirugarren urtez antolatu da Segura, Idiazabal, Zegama, Mutiloa eta Zegamako gaztetxoaren arteko pilota txapelketa. Bertan Tartaloetxe Pilota Elkarteko zegamarrak gure herria defendatzen aritu dira. Beraien artean sailkatze eta kanporatze partiduak jokatu ondoren, ekainak 20an, Zegamako Toki Alai kiroldegian jokatu ziren finalak. Emaizak honakoak izan ziren:

Benjaminak Ioritz Etxeberría-Luis Malkorra (Zegama) 11 Iker Zabala-Iñigo Imaz (Segura) 16.

Alebinak: Eñaut Arretxe-Iñaki Intxausti (Segura) 16, Arkaitz Urbiztondo-Unai Atxa (Zegama) 12.

Infantilak: Ander Caloca-Eneko Arzelus (Segura) 12, Joseba Arakama-Jon Otegi (Zegama) 18.

Hauen ondoren osagarri bezala, Zegamako jubenil mailan jokatzen duten Eñaut Alberdi-Gorka Aierbe, Iker Azurmendi eta Aitor Zabaletaren aurka jardun zuten. Partidu borrokatu baten ondoren lehenak gailendu ziren 22-19ko emaitzaz. Indarrak berreskuratu asmoz, Tartaloetxe Elkartean luntx batekin amaitu zen festa.

Txapelketa honen antolatzailea Segurako Kirol Elkartea izan da eta laguntzaileak berriz 5 herrietako udalak, Sebastian Garaialde eta Segura Irratia.

Tartaloetxe Pilota Elkarteko arduradunak oso gustora gelditu dira Zegamako gazteek egindako lanarekin eta lortutako emaitzekin.

udako ordutegia izango indarrean: goizeko 9etatik 3etara, astelehenetik ostiralera.

Igerilekura autobusa

Urtero bezala Udalak Segurako igerilekura autobus zerbitzua dohain jarriko du herritarrentzat uztaila eta abuztuan zehar.

Kasino Elkartearen historia

Kasino Elkartek, bere elkartearen historia bildu asmoz, bere sorrera eta ibilbideari buruzko informazioa, dokumentazioa nahiz argazki zaharrak bildu nahi ditu. Beraz, zegamarrei orokorrean eta bereziki bertako bazkide diren eta izan direnei dei berezia egiten die informazio hau egun Juntan daudenei ahal duten neurrian bildu eta helarazteko.

Edurne Albizu



Eguneko Zentroa Orobionen

12 plaza prestatu dira adineko ezinduentzat

Ekainaren 22an inauguratu zen Orobioneko Eguneko Zentroa. Adineko ezinduentzako 12 plaza daude aukeran. Ramon Jauregi, Gizarte Politikarako Departamentuko Gizarte Baliabideen Plangintza Kudeaketako zuzendari nagusia izan zen inaugurazioan, Lazkao, Olaberria eta Ataungo alkateen ondoan. Izan ere, hiru herriek elkarrekin eskatutako eta bideratutako proiektua izan baita.

Familiatik gertu

Eguneko Zentroak jangela, jarduera gela, atsedeen gunea, bi komun, bainu geriatriko bat, bulegoa eta office-a ditu.

Goizeko 10etatik arratsaldeko 5etara eskaintzen du zerbitzua Orobioneko Eguneko Zentroak. "Familiako gainerako kideak lanean edo zeregin profesionaletan ari diren bitartean, adineko pertsonak banakako eta kalitate

handiko zaintza izango dute Eguneko Zentroan". 28.014 euro behar izan ditu Diputazioak guztia egokitzeo. Biharko enpresak kudeatuko du.

Ostalaritza zerbitzu pertsonalizatua eta erabiltzaile bakoitzaren beharrei egokitu, higiene pertsonaleko zerbitzua, eskulenen bidezko terapia, gimnasia, demenztziaren bat duten pertsonen zaintza, eguneroko jarduerak egitea, laguntza psiko-soziala, fisioterapia, mediku eta erizainen arreta, ludoterapia eta talde eta jolas jarduerak eskaintzen ditu Eguneko Zentroak. Garraio egokitua ere eskaintzen du, erabiltzaileak beraien etxeetatik zentrorera eramateko.

Felix Urkola alkateak inaugurazioan adierazi zuenez, Lazkaon geriatrikoa jartzeari izango da Lazkaoren hurrengo erronka.

XXX. Udako Euskal Ikastaroak

Uztaila iristearekin batera, Maizpide Euskaltegian Udako Euskal Ikastaroak izaten dira. Aurten, hogeita hamargarrena. Euskaltegian euskara ikastera datozenei begira, eta orokorrean, herritarrei eta goierritarrei begira, hainbat eta hainbat ekintza antolatzen da Lazkaon, uztail eta abuztuan. Jarraian due egitarau osoa:



Uztailak 8, osteguna:

Kepa Junkeraren kantaldia, 22:00etan, Euskadi plazan.

Uztailak 13, asteartea:

Goierriko bertsolari gazteen bertso-jaialdia, Euskadi plazan, 22:00etan. Irati Goikoetxea gaijartzailearen esanetara arituko diren bertsolariak ondorengoak dira: Aitor Sarriegi, Iban Urdangarin, Aitzol Munduate, Alaitz Sarasola, Iñaki Apalategi eta Ekaitz Goikoetxea.

Uztailak 15, osteguna:

'Euskera sencilloaren manifestoa' antzezlan, Euskadi plazan, 22:00etan.

Uztailak 20, asteartea:

Sebastopoleko Tititeroak-ek 'Pailazoen kalejira' aurkeztuko du, Euskadi plazan, 19:00etan.

Uztailak 22, osteguna:

Drindots musika taldea, Euskadi plazan, 22:00etan.

Abuztuak 4, asteazkena:

Koldo Amestoy ipuin-kontalaria, Maizpideko zinema-aretoan, 21:30ean.

Abuztuak 12, osteguna:

Joseba Iparragirre eta Ander San Jose trikitilariak, Maizpideko zinema-aretoan, 21:30ean.

Abuztuak 19, osteguna:

Agurtzane Ugalderen 'Amets urdinaren enkontrua' diapositiba emanaldia, Maizpideko zinema-aretoan, 21:30ean.

Abuztuak 26, osteguna:

Bertso-trama. Bertsolariak: Jon Maia, Maialen Lujanbio, Ekaitz Goikoetxea eta Aitor Sarriegi. Tramagilea: Josu Goikoetxea. Maizpideko zinema-aretoan, 21:30ean.

Antton Ibargurenen omenezko ibilaldia

Aurten, Antton Ibargurenen heriotzaren 15. urteurrena betekoa da; gogoratu altzagatar gazte honek Gasherbrum II mendiaren magalean aurkitu zuela heriotza eta beste urteetan bezala bere oroimeneko eguna antolatu dugu uztailaren 11rako.

Goizeko 8retan lore eskaintza egingo zaio Anttoni Altzagako plazan, ondoren Altzagako inguruetan zehar ibilaldia buruko da. Ibilaldiaren ondoren eta indarrak berreskuratu asmoz nahi duen orok, Olagi Sagardotegian bazkaltzeko aukera izango du.



Guztiak egun eder bat pasatzera eta bide batez Antton agurtzera gonbidatzen zaitu Udalak.



Udaleku irekietan parte hartzen ari diren haur eta gaztetxoak.

Uda kanpaina

Ekainaren 21ean hasi zire herriko gazteenak Uda Kanpainaz gozatzen. Astelehen, asteazken eta ostiral goizak pasatzen dituzte goizeko 10etatik eguadiako ordu batera bitartean.

Gustora dabilta haurrak beraientzako antolatutako ekintza ezberdinetan parte hartzen, txangoak, igerilekuak, eskulanak, artelan tailerra eta beste hainbat jolasetan jo ta su baitabilta. Baina hau hasiera besterik ez da; Uda Kanpaina uztailaren 23rarte luzatuko baita eta bitarte horretan gaztetxoek ez dute aspertzeko betarik izango. Aurtengo Uda Kanpaina amaitzeko uztailaren 23an festa haundia ospatuko dute; ziur helduenek gaztetxoek adina gozatzen dutela.

Uztailak 17: Jubilatu eta pentsionisten bidaia Karrantzara

Udalak antolaturik uztailaren 17an Arama eta Altzagako jublatu eta pentsionistek txangoa izango dute Bizkaiko Karrantza eskualdera.

Autobusa goizeko 8etan aterako da Altzagako plazatik eta Aramako bidaiariak hartu ondoren Bizkaia aldera abiatuko dira. Goizeko 11k aldera Karrantza inguruan dauden Pozolaguako Kobazuloak ikusi ahal izango dituzte. Kobazulo hauek hain berezi egiten dituen estalaktita arraroen kontzentrazio handia daukatela da; dolomitak norabide guztietan forma bitxi askotan mugitzen baitira.

Kobazuloak ikusi ondoren eta dagoeneko gosea lagun izango denez bazkaltzeko parada izango da. Bazkalondoren Enkarterriak eskualdeko puntu interesgarrienez gozatu ahal izango da, arratsaldea aurrera egin eta bueltatzeko ordua iritsi artean.

Bidai honetan Arama eta Altzagako jublatu eta pentsionistez gain gainantzeko herritarrek ere parte hartu ahal izango dute, beti ere autobusean lekua geratzen den bitartean.



Hauek bidaia dohainik izango badute ere bazkaria beraien kontura ordaindu beharko dute. Izena emateko epea uztailaren 12an amaitzen da, izen-emate orriak Altzagako Artea Elkartearen eta Aramako Toki Alai tabernan izango dituzte. Jublatu eta pentsionistek izen emate orria etxera bidaliko zaie eta orriak bete ondoren Udaletxeko buzoian sartu beharko dituzte.



'Luda' berriro Seguran

Livdimila Smuraha bielorrusiarra ekainaren 27an heldu zen Segurara uda pasatzera. 40 egun pasako ditu Lurdes Kerejeta, Peio Aizpeolea eta Garazi Aizpeolearen etxean. ONG batek bultzatuta, Chernobilgo zentral nuklearraren istripuaren ondorioak jasaten dituzten guneetako hainbat gazte Agurain, Idiazabal eta Zegamara ere ekartzen dituzte. Ateraldi hauek, bere herriko negu gogorra gaixotasunetatik babesteko laguntzen diete. Ludak 15 urte beteko ditu uztailaren 31n. Euskara eta gaztelania ulertzen ditu eta komunikatu ere egiten da.

39 neska-mutiko aisialdian

2tik 12 urte bitarteko 39 haur hasi ziren atzo udako aisialdian 5 taldetan banatuta. Begirale lanetan, Elisa Ferreira, Nagore Gonzalez, Estitxu Telleria, Aintzane Intxausti, Alaitz Imaz, Aiora Juantorena eta Nagore Murgiondo ari dira. Goizeko 10etan umetxean elkartuta, 13:00 arte aritzen dira aktibitate eta herriko gune ezberdinetan. Uztailaren 22 arte ibiliko dira.

Bost herri artekoa

Ekainaren 20an jokatu zen

Sanjoanetako herritar sarituak

- **Balkoi-leiho eta atari aurre lehiaketa:**

Atari aurreak: 1. saria: Etxeberri baserria. 2. saria: Merkategi baserria.

Balkoi-leihoak: 1. saria: Pilar Corral. 2. saria: Arantxa Aburuza. Aipamena: Txakarraneko 1. eta 2. etxebizitzak.

- **Plater hausketa:** Xabier Alustiza.

- **Arrantza txapelketa:** Igarki Intxausti (30 zm-ko amuarraina)

- **IV. futbito txapelketa:** 'Ostegunean loto' koadrila.

- **Gazteen bola:** Neskak: Oihane Lardizabal (18 birla). Mutilak: Iñigo Intxausti (13 birla).

- **Herrialdeko bola:** Jexux Mari Intxausti (37 birla).



'Ostegunean loto'-k 5-4 irabazi zion 'Robin Zurrut'-i. Xabier Alustizak luzapenean urrezko gola sartu zuen.

- **Herrialdeko toka:** Antonio Agirrek (14 txapa) 2. egin zuen.

- **San Joan bigarreneko herri toka:** Emakumezkoak: Gema Izuzkiza Gizonetzkoak: Jexux M^a Intxausti.

txausti.

- **Atsedeneko probak:** Toka: Xabin Aldanondo. Botea: Felix Oiarbide. Igel jokia: Silvestre Aldanondo.

Zegaman Bost herrien arteko txapelketaren 3. edizioko finalak. **Benjaminak:** Iker Zabala-Iñigo Imaz (Segura) 16-11 Ioritz Etxeberria-Luis Malkorra. **Alebinak:** Eñaut Arretxe-Iñaki Intxausti (Segura)

gura) 16-12 Arkaitz Urbiztondo-Unai Atxa (Zegama). **Infantilak:** Joseba Aramaka-Jon Otegi (Zegama) 18-12 Ander Kaloka-Eneko Arzelus (Segura).



Igo Kostako itzulian 36 herritarrek parte hartu zuten, 1986. urtean. Argazkia: Gurutx Goikoetxea.

Kostako itzulia uztailaren 10ean

Zenbait urtetan Kostako itzulia egiteari utzita, herriko zikloturista talde sortu berriak egun osoko itzulia berreskuratu du berriro. Uztailaren 10ean, goizeko 9etan plazan elkartuta, Azpeitira joango dira Zumarraga aldetik. Loiolan gosalduraren ondoren, Getarin txakolin batzuk hartu eta Zarautzen izango dute bazkaria. Bazkalondoren Orioko gaina igota Aiatik Tolosarantz abiatuta, arratsaldean helduko dira Segurara. Bazkarira bizikletaz ez doazenak ere joan daitezke. Horretarako, tabernetan jarriko diren txarteletan eman behar da izena.

Labur-labur

- **Kale Nagusiko argindarren kableak** lur azpian sartzeko lanak aste honetan ziren hastekoak. Hilabete inguruan amaitzea espero da. Zulaketak direla eta, ibilbide bat okupaturik egongo da.

- **Ingelesko barnetegia Aterpetxean.** Uztailean eta abuztuan bi asteko 4 txandatan 45 ikasle etorriko dira aldiro. Lehenengo txandakoak atzo hasi ziren. 14tik 17 urte bitartekoak dira. Irakasle lanetan 7 lagun arituko dira.

- **Jubilatuaren egunpasa.** Uztailaren 2. astean Biasterira izango dute irteera.

- **Bolan sarituak.** Ekainaren 20an Olaberrin herrialde mailako txapelketa irabazi zuen Xepeño Agirrek (36 birla). 2. Jexux M. Intxaustik egin zuen eta 3. Imanol Agirrek. Ekainaren 25ean, Hernaniko herrialde mailako norgehiagokan 2. egin zuen Xepeño Agirrek (36 birla).

Joseba Telleria

Gazte festak

Uztailak 15, osteguna:

18:30etan: Arkakuxo jaitsiera eta txupinazoa.

Ondoren, poteo herrikoia trikitilariekin.

Ilunabarrean, ogitartekoe-kin afaria herriko plazan.

Gauean, filmina emanaldia.

Uztailak 16, ostirala:

11:00etan: Bizikleta martxa Alegira.

16:00etan: Kafe tertulia, AHTri buruz.

17:00etan: VII. sasi pilotari txapelketaren finala.

18:00etan: Graffiti.

Ondoren: Sukaldari txapelketa.

Gauean: Kontzertua: Brigada Criminal.

Atsedendian, gau jolasak.

Uztailak 17, larunbata:

Goizean, azoka herriko base-ritarren eskutik.

12:30etan: Sari banaketa.

13:00etan: Txarangarekin poteoa.

14:30etan: Herri bazkaria.

17:30etan: Apustua.

Ondoren: Poteoa.

21:30etan: Sagardotegi afaria. Mozorroturik joatea beharrezkoa da.

Afal ondoren, bertsolariak, jokoak eta abar.

Zaldien Raid proba uztailaren 4an

Uztailaren 4an, 40 kilometroko zaldien Raid proba jokatu-ko da Zaldibian. Goizeko 9,30etan futbol zelaitik abaituko da. Bukatu ere bertan bukatuko da.

Mendi irteera Posetsera

Asteburuan, uztailaren 3an eta 4an, Eriste-Angelorus-Biados zeharkaldia egingo da. Goizeko 8etan abiatuko dira herriko mendizaleak, larunbatean. Langileei 50 euro kostatuko zaie bidaia eta gainerakoei, 30 euro.

Pottoka

gunearen

inaugurazioa

Uztailaren 3an inau-
guratu da Olako-
sailean Pottoka gu-
nea. Informazio
gehiago 10 eta 11
orrialdeetan.



San Pedroak bete-bete

Asteartean San Pedro egune-
an eman zitzaien hasiera aur-
tengo festei txerriaren jaitsie-
rarekin eta patata tortilla
lehiaketarekin. Asteburu ho-
netan izango dute jarraipena
eta honako hauek dira ospaki-
zun nagusienak:

Uztailak 2, ostirala:

Ostiralean uztailaren 2an, sa-
gardo dastaketa izango da
eguneko ekitaldirik garrantzi-
tsuena eta ondoren Joselu
Anaiak taldearekin musika
emanaldia.

Uztailak 3, larunbata:

Larunbatean uztailaren 3an
berriz, gazte bazkaria, ume
jolasak eta herri afaria. Musi-
ka aldetik, Epelde eta Larra-
ñagarekin erromeria eta on-
doren Eraso eta Kaotikorekin
kontzertua.

Uztailak 4, igandea:

Igandean uztailaren 4an eta
aurtengo festei amaiera ema-
teko, goizean zehar txistula-

Tere Arruabarrenaren pintura erakusketa

Azkenaldi honetan ohitu samartuta gauzka Tere Arruabarrenak
pintura erakusketak egitera. Oraingo honetan Zarauzko Kale
Nagusiko Balearri galerian egingo du bere pintura eta margo-
en erakusketa, ekainaren 28tik uztailaren 9a bitartean.

Altzari eta tresna elektrikoen bilketa

Datozen hiru hilabeteetarako baliorik gabeko traste zahar eta
tresna elektrikoak biltzeko egunak honako hauek izango dira:
uztailaren 14a, abuztuaren 11a eta irailaren 8a. Zerbitzu hau ja-
sotzeko aldeztatu aurretik 943-161590 telefonora deitu behar da.

Jaiotza

Ekainaren 17an jaio zen Etxarri baserriko Mateo eta Edurne-
ren alaba, Nahia Telleria Insausti. Zorionak familia osoari.

Iñaki Ugalde

riak eta dantzariak, eta arra-
tsaldean pilota partidak eta
herri kirolak.

Honela osatuko dira aur-
tengo festak.



Paxkual Larrañagaren omenez

2004ko uztailaren 11n Paxkual Larrañaga herriko musika maixu handia gure artetik joan zitzaiguneko urteurrena beteko da. Bera gure artetik joan zitzaigunetik ikasle ohiek eta herritarrek orokorrean bere oroitzapena inoiz baino gertuago somatu izan dugu. Bere oroitzapena inoiz galduko ez dugula argi izanik, urtemugaren aurrean

omenaldi xumea antolatu da ikale oihen eta udalaren eskutik.

Urtemugaren eguna uztailaren bigarren igandean beteko bada ere, egun horretan Lierniko Erromeria ospatzen dugunez eta Paxkuali omenaldia egiteko egun bezala uztailaren lehenengo igandea aukeratu izan da. Paxkuali es-

Lierniko erromeria uztailaren 11n

Uztailaren bigarren igandean urtero bezala Ormaiztegiarrok Lierniko erromeria eguna ospatuko dugu. Aurtengoan jarraiko egitaraua prestatu da:

11:00etan: Salda beroa dastatzeko aukera izango da.

12:30etan: Meza nagusia Lierniko Amaren ermitan.

13:15etan: Haurrentzako jokoak.

14:30ean: Bazkari herrikoa. Arzak eta bere lagunek prestatuturiko haragi gisatua dastatzeko aukera izango da.

16:30ean: De Traka animazio taldearen ikuskizuna, haurrak ikuskizuneko partaide izango dira eta zuzeneko musikaz animaturiko giroa izango da.

18:00etan: Lierniko toka txapelketa herrikoa. Irabazleak sari bezala Mujika jatetxeak emandako bi pertsonentzako bazkari edo afari baterako txartela jasoko du.

kainiko zaion egitaraua prestatuz, uztailaren lehenengo igandean bera biziki gogoratzeko asmoz abian jarri da aurtengo omenaldi hau.

Lehenengo urtemugako egitaraua jarraikoa izango da:

11:00etan: Paxkualen txistulari ikasle ohien kalejira herriko kaleetan zehar.

12.00etan: Meza Nagusia

Legazpiko Santi Kutz abesbatzak abestua. Organista: Pepe Arzelus izango da, txistularia, berriz, Iñaki Letamendia.

13:00etatik 13:30era: Tolosako Udal Txistulari Bandaren emanaldia herriko enparantzan.

Jarraian: Luncha, herriko enparantzan

Aitziber Murua



Herri eskolako lanak

Itsasondoko Herri Eskolan ekintza anitzetako aterpea eraikitzeko lanak hastear dira. Aterpe hau haurrentzako jolastoki, gimnasio gisara eta beste hainbat ekintzatarako erabilgarri izatea espero da.

Lanak eskolako haurrak oporretan dauden bitartean amaitzea espero da; honela ikasturte berriarekin batera instalazio berriak ere prest izango dituzte.

Ekintza anitzetako aterpea eskolako bi eraikinen artean eraikiko da eta gaur regun bertan dagoen jolastokia eskolako lehenengo eraikinaren aurrealdera pasako da.

Instalazio hauek osatzearen eta herrian dagoen komun eta aldagela publikoen gabeziari erantzuteko, eskolako bigarren eraikinaren atzeko zirrikitan aldagelak eraikiko dira.

Mutiloko sagardo dastaketara jaitsiera

Gaur ostirala, hilak 2, Mutiloan sagardo dastaketa izango da, San Pedro jaien barruan. Zeraindik bertara jende asko joaten dela ikusita, Kultur Etxeak herritar denak batera joateko lehenengo Mutiloko sagardo probaketarako jaitsiera antolatu du. Asmoa ahalik eta herritar gehien juntatu eta denak elkarrekin festa giroan, lehenagoko gazteek egin ohi zuten moduan, festara oinez joatea da. Mutiloko

jai ederrera joateko asmoa duten zeraindar guztiak iluntzeko 7ak aldera plazan bildu daitezen gonbidatzen ditu Kultur Etxeak. Tikitixaren eta txistuaren laguntzaz joango dira denok elkarrekin Mutiloko adiskideen San Pedro jaietara. Bide batez, Zeraingo herriak mutiloarrak gonbidatu nahi ditu, Andramaritan Zeraingo sagardo dastaketara etor daitezen.

Ion Muñoa

Jaunartze bakarra aurten

Aurten jaunartze bakarra izan da Zerainen. Joan den maiatzaren 30ean Andoni Alustizak hartu zuen lehenengo aldiz jauna. Eguraldiak lagundu ez bazien ere, festa giroan ospatu zuen familiakoekin eta lagunekin. Zorionak Andoni!



Bi pilotari gazte 5 herrien arteko txapelketan

Aurten hirugarren aldiz jokatu den 5 herrien arteko pilota txapelketan bi herritar gaztek hartu dute parte: Mendi baserriko Eneko Arzelusek eta Mendarteko Iñaki Intxaustik. Biak ala biak bikain aritu dira. Alebinen mailan, Iñaki Intxaustik finala irabazi zuen Segurako Eñaut Arretxe bikotekidearekin. Infantilen mailan, berriz, Eneko Arzelus azpitxapeldun izan zen Segurako Ander Caloca bikotearekin. Zorionak Iñaki eta Eneko! eta segi horrela!

Tobera musika eskolako Zeraingo haurren kontzertua

Joan den ekainaren 17an, Tobera musika eskolako Zeraingo haurrek urteroko kontzertua eman zuten Kultur Etxeko areto nagusian. Guztira 8 haur izan ziren urtean zehar ikasitakoa jendearen aurrean erakusteko aukera izan zutenak: Jone Oria,

Olatz Aranburu eta Ainhoa Arzelus akordeoiarekin; Mikel Etxeberria eta Jokin Intxausti gitarrarekin; Josu Etxeberria eta Mikel Oria trikitixarekin; eta Andoni Alustiza panderoarekin. Bertaratu ziren denek gozatu ahal izan zuten txikienen musikarekin, batik bat, guraso eta aiton-amonek. Kontzertu honekin Tobera musika eskolak amaiara eman dio aurtengo ikasturteari eta datorren irailean hasiko dira, berriz ere, lanean.

Mandio taberna berriz irekita

Hamabost eguneko oporraldiaren ondoren, uztailaren 1az gozotik, berriz ere irekita ditu ateak Mandioa tabernak.

Medikuaren oharra

Uztailean, abuztuan eta irailean, larrialdiak Beasaingo Anbulategian 14:00etatik 17:00etara. Bertako telefonoa 943027700. Bestelako larrialdi orokorretarako: 112.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Asegurak
- Inmueble agentzia

Herri Irratia

RADIO POPULAR

Goierri 105.2 fm

Gaur ere zure herria gure uhinetan

Ordiziako koadrilarteko futbol txapelketak 25 urte bete ditu

Txantxi eta Itxaropena koadrilek, poteo garaian erabaki zuten koadrilarteko futbol txapelketa antolatzea. 1980. urtea zen hura. Krisi ekonomikoaren garaia, langabezia handia, eta kirola egiteko ohitura handiegirik ez. Pentsatu eta egin. Aurten, 25. denboraldia izango du hainbesteko arrakasta izan duen eta duen txapelketa honek.

Lehenengo urtea arrakastatsua izan zen oso. 200 bat lagunek hartu zuten parte, 15 kideko taldeetan banatuta. Adin ezberdinetako jendea zen, 20 urtetik 40 urtera bitartekoak. Ordiziarrek ordiziarrentzat antolatutako txapelketa zen. Ordiziarrek bakarrrik har baitezaketen parte.

Urte hartan parte hartu zuen taldeetako bat, Zumardi izan zen. Bertako jokalaririk izan ziren Sabino Zeberioak eta Patxi Garmendiak kontatu dizkigute garai hartako hainbat oroitzapen.



Akelarre taldea 1980 urtean.

14 denboralditan lehiatu ziren Zumardikoak. Lortu zuten posturik onena, 3. postua izan zen. Errugbian jokatzeko zuten jokalaririk ere baziren taldean. "Txapelketaren berri jakin eta izena eman genuen. Garai hartan denera animatzen ginen", adierazi du Sabino Zeberioak.

Gaur egun bezala, anexiona jokatzeko ziren partiduak, larunbat arratsaldeetan eta igande goizetan. Igande goizetako partiduak gogorak izaten ziren, larunbat gauaren ondorenak. Makina bat festetatik zuzenean joandakoak badira.

Bitxikeria bat gogoratu digute: "Egun batean, goizeko 8etan jokatzeko genuen eta taldea ezin osatu genbiltzan. Bat-batean, auto batean, lau lagun etorri ziren, Tolosako Inauterietatik zuzenean. Aldatu eta jokatzeko hasi ziren. Atsedendian, ura behar eta iturririk ez zegoen, tabernak oraindik itxita. Gau hartan euri pixka bat egin zuen eta putzuetatik aritu ziren, freskatzen".

Gogoan dute taldearen lehenengo trajea zein izan zen: Romeronean erositako barruko kamiseta bana, granatea. Atzean, zenbakia, plantxare-

25. urteurreneko ekitaldiak

Erakusketa

Koadrilarteko txapelketaren historiaren argazki erakusketa ikusgai dago, Barrera Kultur etxean, uztailearen 10era arte.

Uztailak 3, larunbata:

Haurrei zuzendutako eguna izango da. Arratsaldeko 5etatik 8etara, Plaza Nagusia, haur jolasak izango dira.

Uztailak 10, larunbata:

Final handiaren eguna. Irrintzi-Urbite sagardotegia eta Badago-Tximista sagardotegia norgehiagokak irabazten dituztenek jokatu dute finala, goizeko 11,30etan. Aurretik, 3. eta 4. postuak erabakitzekeo norgehiagoka jokatu da eta baita Beterenoren arteko neurketa ere. Ondoren, ohi bezala, bazkaria izango dute Beti Alai pilotalekuan, oraingo eta lehengo jokalariek.



Iñaki taberna, 1984an.



Lagun Onak, 1982an.

kin erantsita. "Hirugarren urtean, Martinez tabernak eman zigun ekipajea. Orduan, propaganda hasi ginen kamisetetan jartzen".

Futbolaren aitzakian par-randa ugari egindakoak dira. Azken batean Zumardiren helburua, irabaztea baino gehiago, futboleko jokatzeko ondo pasatzea baitzen. Sabino Zeberio Zumardi taldeko atezaina izan zen eta Patxi, atzelaria. "Atezain txarra nintzen, gol asko sartzen zizkidaten. Partidu batean 11 eta horrela. Baina gustura, koadrilakoak gutxi keizitzen ziren eta. Herrena izanda zenbait gauzatarako mugatuta egoten nintzen baina bazekiten zer zegoen eta ondo. Bazekiten ni atezain egonda txapelketarik ez genuen irabaziko". Patxi Garmendiak baieztatu duenez, "garrantzitsuena, koadrilan ondo pasatzea zen, eta ez irabaztea".

Horren adibide da, Patxi Garmendiak ondoren kontatu duen bitxikeria: "Denboraldi oso bat egon ginen partidurik irabazi gabe. Hurrengo denboraldia hasi eta lehenengo partidua irabazi genuenean, festa handia egin genuen. Beasaingo festak ziren eta partidua amaituta, Beasaina joan ginen, añaioja edatera. Ederki



Laket taldea.

jarri ginen eta Beasainen ere ederki aritu ginen, kantari."

Finaleko eguna, festen atarikoa

Ordiziako jaien aurretik jokatuko ohi da koadrilarteko futbol txapelketako finala. Egun handia izaten zen. "Koadrila eguneko prestakuntza izaten zen koadrilarteko futbol txapelketaren finala. Izugarritzko festa izaten zen. Gaur egun jaitsita dagoela diote", dio Sabino Zeberio.

Herri bazkarian elkartzeko ziren eta dira, txapelketan parte hartutako futbolariak. "Festak zirela ematen zuen egun horrek. Txaranga baka-

rrik falta izaten zen. Kaleak jendez beteta, baloiak hara eta hona... oso polita izaten zen.", gaineratu du Patxi Garmendiak.

Aurten, uztailaren 10ean izango da egun handia. 25. urteurrena ospatzeko ekitaldi bereziak antolatu dituzte. Barrera Kultur etxean ikus daitekeen argazki erakusketarekin batera, uztailaren 10ean, herri bazkaria egingo dute 25 urte hauetako futbolariarekin. "Egun polita izango da. Herri bazkarian jende asko parte hartzekoa da. Giro polita sortuko da herrian", gaineratu dute. Beteranoen futbol txapelketa ere jokatuko da, goizeko 10,30etan.

25. urteko txapelketak

- 1980: Txantxi
- 1981: Akelarre
- 1982: Bar Iñaki
- 1983: Itxaropena
- 1984: Zigor
- 1985: Bar Iñaki
- 1986: Bar Iñaki
- 1987: Or Konpon
- 1988: Or Konpon
- 1989: Or Konpon
- 1990: Bar Iñaki
- 1991: Bar Txiki
- 1992: Laket
- 1993: Bar Txiki
- 1994: Bar Txiki
- 1995: Bar Txiki
- 1996: Ala Pivot
- 1997: Tximista
- 1998: Tximista
- 1999: Loretos
- 2000: E.R. Matxain
- 2001: Badago
- 2002: Bustunmira
- 2003: Tximista

Txapel gehien irabazitako jokalaria, Kalixto Satrustegi da.



Urbitarte sagardotegia taldea.



Morapios taldea.

Herri kirolak bultzatzeko Xibak antolatutako herri arteko txapelketan

Idiazabalgo herri kirol taldea

Euskal Herriko txapelketan bigarren

Ekainaren 19an Tolosan jokaturako herri arteko herri kirol txapelketako finalean, Idiazabalgo herri kirol taldea bigarren izan zen. Aurretik, Gipuzkoako kanporaketan, txapeladunak izan ziren.

Aurtengo San Blas jaietan, Orendainen aurkako apustua izan zen hasiera. Ondoren etorri zen Xibak antolatutako herri arteko herri kirol txapelketa. "Hasieran ez parte hartzea erabaki genuen, oso maila altua egongo zela uste baikenuen. Baina animatu egin gintuzten eta parte hartzekotan asuntza serio hartuko genuela esan genuen. Udalarari entrenatzeko lokala eskatu genion, erramintak prestatu eta jendea bilatzen hasi ginen. Zailena hori izan zen. Mutilak bagenituen baina neskak falta ziren. Tiraka ekarri genituen neskak", adierazi du Mikel Garmendia entrenatzaileak.

Herri kirolak bultzatzea helburu

Xiba, Euskal jolas, joko eta kirolen Topagunea, Ikastolen Elkartaren eskutik eta Ikas-pilotaren bultzadaz sortu da. Euskal jolas, joko eta kirolen berreskuratze integrala lortzea du helburu.

12 lagunekoko taldeak osatu behar izan dira txapelketan parte hartzeko. 6 neska eta 6 mutil. Bai neskek eta bai mutilak egin beharreko probak ondorengoak izan dira: harri-jasotzea, jende-zama, sokati-



Oso ekimen interesgarria iruditu zaie Xibarena, herri kirol mundua bultzatzeko. Antolakuntza oso ona izan dela aipatu duten behin eta berriz eta zorionak eman nahi izan dizkie.

ra, lasto-altxatzea, txingak, toka, zaku-proba, trontza, ingudea, oskol-biltzea eta dantza (ariñ-ariña eta fandangoa). Neskek proba berdinak egin behar izan dituzte, beraien baldintzetara egokituta. Neskak aurkitzea izan omen dute zailena. Azkeneko momentuan, Loinaz Urrestarazuk azkeneko proba ezin

zuela joan eta, Eider Katarain izan da azken fitxajea.

Txapelketara aurkeztearekin bakarrik gustura zeuden idiazabaldarrak. "Uste baino hobeto ibili ginen. Gipuzkoako txapelketan aurrenak izan ginen eta Euskal Herrikoan, bigarrenak, Zizurkilen atzetik", argitu digu Garmendiak. Emaitzarekin gustura badau-

de ere, arantzatzko bat gelditu zaie idiazabaldarrei: "Anoetan, Gipuzkoako txapelketan 11 puntugatik irabazi genion Zizurkili eta finalean 6 puntugatik galdu genuen. Horrengatik daukagu pena pixka bat, baina firmatuko genukeen bigarren postu hori", adierazi du Jaione Munarrizek. Sokatiran azkeneko tiraldian galdu zuten txapelketa. Idiazabaldarrek lautik hiru tiraldi irabazi baitzituzten eta zizurkildarrek, lautik lau. Sokatirako probak ditu puntu gehien.

Finalean 20 taldek hartu zuten parte, herrialdekako txapelketetatik sailkatutakoak. Helburu ezberdinak zituzten taldeak aurkitu dituzte Jon Mujikak azpimarratu duenez: "Hasieran batzuk, Andoaingo saiora, egun polit bat pasatzera joan ziren, jolas bat bezala. Saio hura bertan behera gelditu zen eurirengatik eta hilabetez atzeratu zen Gipuzkoako kanporaketa. Orduan, jendea prestatuago joan zen".

Jaione Munarrizek gaineratu duenez: "proba guztiak prestatuta joatekoak dira, ez dira jolasak. Lehenengo saiora jendea ikustera joan zen eta ikusi zutenean zer zegoen, Anoetara prestatuago joan ziren. Beste zenbait talde aurkeztu ere ez ziren egin".

Bitxikeria bat kontatu digu Jon Mujikak. "Harro fama hartu genuen lehenengotik. Lehenengo ekitaldia baino lehen, probak nola izango ziren erakusteko-eta elkartu ginen. Gure galderak, trontzak



Ariñ-ariña eta fandangoa ere dantzatu behar izan dute txapelketan.

egurra pogo edo pinua izango ziren eta guztiek arraro begiratzen ziguten. Jendea konturatu zen prestatuta gindoazela”.

Herri kirol eskola

Txapelketan parte hartzeko tan ondo prestatuta joatea helburu zutenez, Idiazabalgo udalari lokala eskatu, eta entrenamenduetarako egokitu dute, Kale Nagusiko 37.enean dagoen lokala, (Artzain-Gaztaren ondoan). Entrenatzeko erramintak lortu dituzte. Beste batzuk eurek egin ere bai. Lasto altxatzen entrenatzeko esaterako, polea bat jarri dute. Sokatirarako ere beste hainbeste.

Nolabait esateko, herri kirol eskola sortu da Idiazabalen. Segurako eta Ordiziako talde bana ere aurkeztu ziren lehiaketara eta Idiazabala joan izan dira, entrenatzera.

Eskolak emaitza onak eman ditu. Nabarmenezkoa da, Andoni Katalinak eta Lurdes Intxaustik, trontzan, txapelketa guztian, korterik gehien egin dituztela.

Dantzan ere egin behar izan dute txapelketan. Ariñariña eta fandangoa dantzatu behar izan zuten. Hilabetean prestatu dute proba hori ere.

Herrian giro polita

San Blas jaietan giro polita sortu zen herri kirol apustua- ren inguruan. Oraingo txapelketan ere bai. Jarraitzaile ugari joan dira herritarrak



Idiazabal herri kirol taldea

Mikel Garmendia: entrenatzailea.

Aritz Iparragirre: harrijasotzen, jende-zama neta sokatiran.

Xabier Aranburu: lasto-altxatzen, jende-zaman eta sokatiran.

Iker Oiarbide: txingatan eta sokatiran.

Anartz Prados: dantzan, tokan eta zaku-proba.n

Andoni Katalina: dantzan, trontzan eta oskol-biltzen.

Jon Mujika: Ingudean eta sokatiran.

Eider Alustiza: dantzan, sokatiran eta jende-zaman.

Uxune Alustiza: dantzan, tokan eta zaku-proban.

Lorea Katarain: sokatiran, txingan eta harrijasotzen.

Loinaz Urrestarazu eta Eider Katarain (azkenko saioan aritu zen): jende-zaman, sokatiran eta ingudean.

Lurdes Intxausti: trontzan eta 3lasto-altxatzen.

Jaione Munarriz: oskol-biltzen eta sokatiran.

animatzera.

Herrian herri kirol giroa sortu da. Mikel Garmendia, pertsonalki oso pozik dago, behin baino gehiagotan saiatu

izan baita gazteak herri kirol mundura gerturatzeko.

Hemendik aurrerakoari dagokionez, datorrena data- relara diote. “Momentuan

oporralditxo bat hartu eta irail-urri aldera erabakiko dugu zer egin, afari edo bazkari baten bueltan”, aitortu digute.

izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA
☎ 943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

ZINEA

ORDIZIA:

'Puerta del tiempo'.

Igandea 23: 16:45.

musika

LAZKAO:

Uztailak 8, Kepa Junkeraren kantaldia, Euskadi plazan, 22:00etan.

MUTILOA:

Uztailak 2, Joselu Anaiak, 24:00etan, plazan.

Uztailak 3, Epelde eta Larrañaga trikitilariekin erromeria, 23:30ean, plazan.

Uztailak 3, Eraso eta Kaotiko taldeen kontzertua, plazan, 01:30ean.

Uztailak 4, Ostolaza eta Andonegi trikitilariak, eguerdian eta iluntzean, plazan.

ZALDIBIA:

Uztailak 16, Brigada Criminal, plazan, 23:00etan.

bertsoak

LAZKAO:

Uztailak 13, Goierriko bertsolari gazteen bertso saioa: Aitor Sarriegi, Iban Urdangarin, Aitzol Munduate, Alaitz Sarasola, Iñaki Apalategi eta Ekaitz Goikoetxea bertsolariak, Irati Goikoetxea gaijartzailearen esanetara jardungo dira, Euskadi plazan, 22:00etan.

antzerkia

LAZKAO:

Uztailak 15, 'Euskera sencilloaren manifestoa' antzez-lana, Euskadi plazan, 22:00etan.

kafe-tertulia

ZALDIBIA:

Uztailak 16, AHTri buruzko kafe tertulia, 16:00ean.

erakusketak

BEASAIN:

Azarora arte, 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa, Igartza jauregian.

Uztailean, Bear Pintura Zale-tuen Elkarteko ikasleen lanen erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan.

ORDIZIA:

Uztailaren 10era arte, Koadrilarteko futbol txapelketari buruzko argazki erakusketa, Barrenan.

mendi irteera

ORDIZIA:

Uztailak 4, Ordiziako Mendizaleak: Zunbeltz-Bakedano.

Uztailak 9-10-11: Ordiziako Mendizaleak: Formigal.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta

(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Uztailak 3-4: Atorrasagasti.

(Gipuzkoa plaza - Ordizia). 943 882938.

Uztailak 10-11: Urbizu.

(Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.

Ikastetnik
psikopedagogia zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta
tratamendua

- Test-ak, Frogak
- Tailerrak

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488
OLABERRIA

Olagi
Sagardotegia

Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26

ALTZAGA



'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa

Beasaingo Igartza jauregian, Aurtzaka dantza taldeak antolatutako 'Dantza Beasainen. Aurtzaka 25 urte' argazki erakusketa ikusgai dago, azarora arte.



Ordiziako koadrilarteko futbol txapelketare historia

Ordiziako Koadrilarteko futbol txapelketak 25 urte betetzen dituela eta, argazki erakusketa dago ikusgai Barrenan, uztailaren 10era arte.



Ordiziako monografia historikoa burutzeko beka deialdia

Ordiziaren sorreraren 750 urtemuga ospatuko da 2006. urtean. Ospakizun horri begira, Udalak eta Eusko Ikaskuntzak Ordiziako monografia historikoa burutzeko beka baterako deia zabaldu dute.

8.500 euroko beka emango da eta urtebeteko iraupena izango du. Hautagaiak aurkezteko epea uztailaren 9an amaitzen da.

Historian lizentziatuak izan beharko dute edo eta egin beharreko lanaren arloan esperientzia dutela frogatu beharko dute. Eusko Ikaskuntzako kide izan beharko dute edo bestela lana hasterako kide egin beharko dute. Ordizian edo inguruan errolaturiko pertsonen lehentasuna izango dute.

Proiektua euskaraz edo gaztelaraz egin daiteke. Banaka zein taldeka. Taldeka aurkezten direnean zuzendari bat izendatu beharko dute.

Bekaren eskaera, Eusko Ikaskuntzak hartarako xedaturiko inprimakietan aurkeztu beharko da eta espresuki, gutxienez, ondoko puntuak barne hartu beharko ditu: 1.- Hautagaiaren/hautagaien eskabidea. 2.- Eskatzailearen/eskatzaileen Curriculum vitae laburra. 3.- Egin beharreko lanaren txosten zehatza (proiektuaren izenburua eta egileak, erabili beharreko metodologia, proiektuaren laburpena, helburuak, gaiaren aurrekoak eta egungo egoera eta lan egitasmoa). Gehienez ere 10 orriko informazio osagarria gehitu daiteke. Inprimakiak Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegotan jaso daitezke eta baita www.eusko-ikaskuntza.org web orrian.

ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

UDA 2004

Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain

Datorren ikasturtea prestatzen hasi nahi duzu?
Kilin-kolon utzitako gairen bat sendotu?
Talde txikiak eta arreta pertsonalizatua eskaintzen dizkizugu

ESKOLA LAGUNTZA

- ✓ Gai eta maila guztiak
- ✓ Unibertsitate maila (Errekuperazioak)
- ✓ Eskolako lanak
- ✓ Ingelera gaztetxoentzat

TAILERRAK (6-12)

- ✓ Arrazonamendua
- ✓ Abstrazioa
- ✓ Autonomia garatu
- ✓ Irakurmena
- ✓ Idazmena

TAILERRAK (12-18)

- ✓ Irakurritakoa ulertu
- ✓ Ikas-teknikak
- ✓ Testu-komentaketak
- ✓ Idatzizko espresioa
- ✓ Ortografia

Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

Etxebizitzak

salgai

- ➔ Zaldibian pisu berria salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. Ganbara ere bai. Mobleztatua. 699761651.
- ➔ Etxebizitza salgai Lazkaon. 59 m². 2 logela, egongela, sukalde ekipatua, bainugela eta ganbara. 943087914. Iluntzetan deitu.
- ➔ Torreviejan, apartamentua salgai. Erdigunean. Mobleztatua. Terraza handia. Akabatu ona. 948075351.

errentan eman

- ➔ Jakan, igerileku duen apartamentua alokatzen da, udako. 943216684 - 943885674.
- ➔ La Pinedan (Salou) udako apartamentua alokatzen da. Hondartzako lehenengo lerroan. 669861583.

➔ Uztailan, Jakan, etxebizitza alokatzen da. Igeriluarekin. 943888485. 20:00etatik aurrera deitu.

➔ Luz Ardidenen apartamentua alokatzen da. Sei ohe eta igerilekua. 943881666. Denda orduetan deitu.

➔ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urderraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

elkarbanatzeko

➔ Bilbon, ikasle pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. 680171588.

Negozioak

errentan eman

➔ Orexako Herriko Ostata alokatzen da. 943692029.

Lokalak

salgai

➔ Usurbilen, Urbil merkataritza-zentroaren ondoan 420 m²ko lokala salgai edo alokatzeko. Bulego bezala erabiltzeko egokitu, lokal argia, ordenagailu-sarea instalatua, ordenagailu askorentzako hargunea. 943363040.

errentan eman

➔ Beasainen 133 m²ko lokal komertziala alokatzen da. Erdigunean. Edozein negoziotarako egokia. 615787097.

Bestelakoak

salgai

➔ Lurra goldatzeko makina salgai. Prezio oso interesgarria. Gaueko 9etatik 11etara deitu. 943889051. Pakito.

➔ Scooter motorra salgai. Beta ARK 50. 900 euro. 606540478.

➔ Abdominalak egiteko bi makina salgai. Bakoitzak 30 euro. 615768205.

➔ Egurrezko 7 ate sal-tzen dira. Bi kristaldu-nak. 82 cm-ko zabalera. Estreintatu gabeak. Prezio oso interesgarria. 676929453.

➔ Solariuma salgai. Gorputz osokoa eta alde batekoa. Gutxi erabilia. 250 euro. 13:30etik 14:30era eta 20:00etatik 21:00etara deitu. 943187578.

➔ Karro-denda salgai. 4 laguntzako, abantze eta guzti. 16 metro karradenera. Bi logela eta erdian salarekin. Kofre jator bat ere bai. 605750914 - arrietabeo@euskalnet.net

opari

➔ 12 eta 10 urteko haurren txirrinduak nahiko genituzke. 696218195.

Animaliak

salgai

➔ Ehizeko txakurra salgai (setterra). 2 urte eta erdi. 943887361.

➔ Pastor Aleman arrazako txakurkumeak salgai. 626523064.

opari

➔ Alaskan malamute txakurra opari. 4 urtekoa. 690364215.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



AROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Aseguru konfidentziala

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE, S.L.

Elozei, 1- beheia

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

Ilbilgailuak

salgai

➡ Citroen Xara salgai. 7486-CGY. 686577307..

➡ Peugeot 306 XS 1600 salgai. SS-AU matrikuladuna. 605733843.

➡ BMW 325 TDS markako autoa salgai. 97. urtekoa. Egoera onean. Oso ekipatua. 658744903.

➡ Volkswagen Passat 1.9 TDi 115Cv Trendline 2000n erosia, 105.000 Km, extra asko (4x E.E., 4xAirbag, C.C., Aluminioa 16" 205, Climatronic, ABS, CD 12x, e.a.) Beti gara-jean, oso ondo zainduta. 652701007.

➡ Volkswagen Bora 1.9 Tdi salgai. 115 zal-di. High line. 6 abiadura. 2000n erosia. 69.000 km. Extra asko (alea-ziozko llantak 16", mil miglia, ee, cc, abs, eds, alarma, haize klimatiza-tua, eta abar). Beti gara-jean egona. Egoera ezin hobean. 609411811.

➡ Garraio txartel na-zionala eta kamioneta salgai, 3.500 kilo baino gutxiagoko kargarekin. Bolketea ere badu. 657792141 - 651701690.

➡ Renault 19 1900 diesela salgai. SS-AM. Egoera onean. 1.700 euro. 649704743.

➡ Golf GTi salgai. Bi-garren modeloa (serie 2). 1.500 euro. 625702862.

Lana

eskaerak

➡ Irailetik aurrera, mutil edo neska bat be-har da Lazkaoko taber-nara baterako. 943160152. 14:30etik 15:30era deitu.

➡ Tabernan lan egite-ko neska euskalduna eta esperientziaduna behar da. Kontratuarekin. 636588403.

➡ Pertsona euskaldu-na behar da tabernan lan egiteko. Lanerako gogoia duena. 943886577 - 943160205.

➡ Lazkaoko taberna baterako langilea behar da. Beharrezkoa euska-raz jakitea. 943886852.

➡ Zerbitzaria behar da Beasainen. 629160500 - 667734759.

➡ Esperientziadun zerbitzariak behar dira, Goierriin, uda denboral-dirako. 655743368.

➡ Lazkaon, asteburue-tarako tabernarako zer-bitzaria behar da. 943882029.

eskaintzak

➡ Uztailean haurrak nahiz adineko pertsonak zaintzeko prest dagoen 19 urteko neska naiz. Ordizian edo inguruan. 943086999. Eguerdie-tan edo gauean deitu. Naiara.

➡ Emakume bat prest dago adineko pertsonak zaintzeko, garbiketara-ko edo gidari bezala lan egiteko. Orduka edo egun osoz. 943085508 - 678781985.

➡ 19 urteko mutila prest dago edozein lan egiteko. 639984216.

➡ Neska euskalduna prest dago haurrak edo helduak zaindu, etxeko lanak egin edo zerbitza-ri lana egiteko. Ordizian edo Beasain aldean. 943801392. Aintza.

➡ Neska euskalduna eskaintzen da tabernan zerbitzari moduan ari-tzeko. 943801392. Amalur.

Goierriko komunikazio proiektu berri baterako lanpostu hauek bete behar dira

KAZETARIAK

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Kazetaritza ikasketak izatea, Kazetaritza ikasten egotea edo kazetal lanetan esperientzia izatea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.
- Quark X Press programa ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali
uztailaren 10erako.
idazkaritza@bertako.net

KOMERTZIALA

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Soldata finkoa, gehi komisioak.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.

Curriculum Vitae zehatza bidali
uztailaren 10erako.
idazkaritza@bertako.net

KUDEATZAILEA

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Laneko kontratua, gizarte segurantzarekin.
- Soldata finkoa, gehi komisioak.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Kudeaketa mailan ezagutza izatea.
- Autoa izatea.

Kontuan hartuko da:

- Eskarmentua izatea antzeko lanetan.
- Eskualdekoa izatea.
- Eskualdea ondo ezagutzea.
- Ofimatika ezagutzak izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali
uztailaren 10erako.
idazkaritza@bertako.net



Ataun San Martingo eskola umeak 1930 inguruan

Urte askotan Sakanan albaitari ibili zen Jose Agirrezabalek Iruñetik bidali digu argazki hau. 1930 inguruan Ataun San Martingo eskolako neskak ageri dira bertan. Erdi-erdian dagoen irakaslea Maria Altolagirre Arrese da eta ikasle guztien izenak jakitea ezinezkoa izan da.



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INPRIMATEGIA

Tel.: 943 88 94 82

BEASAIN

Aholkularitza

ASEPLAN

Abokautak - Ekonomilariak

Tel.: 943 887 129

Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420

J.M. Iturriotz, z/g

- ✓ Enpresen asesoria eta gestioa
- ✓ Etxebizitza salerosketa
- ✓ Etxeko jabekideen administrazio-lanak

e txekin

www.txekin.net

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a

Tel.: 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11

www.anzizar.com

BEASAIN



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

Tel.: 943 88 11 94

ORDIZIA

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



- ✗ LEIHOAK, ATE-AK eta abar
- ✗ ESKAILERAK NEURRIRA




Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa

20491 LEABURU

Tfnoa.: 943 67 36 11

Faxa: 943 67 36 55



ARGI
OPTIKA

- Ukipen lentine egokitzapenak
- Ikusmen azterketa eta doako begi tentsioren hartzea.
- Eguzkitako betaurrekoen, betaurreko graduatuen, progresiboen eta bifokodunen aukeraketa.

NAFARROA
ETORBIDEA, 14
BEASAIN - GIPUZKOA
943 88 31 10



SEI HILEBETERAKO
UKIPEN-LENTEEN
PACKA
MULTILENS GAMA

Pepe Jeans
LONDON

KAMISETA


2 OPARI

MULTIOPTICAS

LEHENAK ZERBITZU OPTIKOETAN

Pepe Jeans
LONDON

Promozio baliagarria 04/07/01etik 04/08/31ra. Oinarriak notario aurrean utzita daude.



Hau guztia barne: kaxa bi, sei hilebeterako Multilens gamako lentekin; hiru pote, 360 ml-ko Multilens disoluzioarekin; lenteak eramateko kurbila; eta kamiseta bi, Pepe Jeans markakoak (neska eta mutil)

R.P.S. Nº 164/99 I.L.G.

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel.: 943 51 78 11
ERRETERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

GOIERRI

Berdea eta gehiago

Parke Naturala eta Kulturala
Gipuzkoa - Euskadi



MUSEOAK ETA INFORMAZIO PUNTUAK

ARALARREKO INTERPRETazio ZENTRUA ATAUN
IGARTZA, ERTAROKO MULTZOA BEASAIN
ZUMALAKARREGI MUSEOA ORMAIZTEGI
ERTAROKO INTERPRETazio ZENTRUA SEGURA
EHUNGINTZA TAILERRA ZEGAMA
EGURRAREN INTERPRETazio ZENTRUA ZEGAMA
PARKE KULTURALA ZERAIN

JATETXEAK

ARTZAIENEA- Beasain	943 16 31 16
AZTIRIA- Gabiria	943 73 36 22
DOLAREA- Beasain	943 88 88 29
KUKO- Ormaiztegi	943 88 28 93
LOINAZ- Beasain	943 88 20 07
MANDIOA- Zerain	943 80 17 05
MANDUBIA- Beasain	943 88 26 73
MARTINEZ Ordizia	943 88 06 41
OIANGU- Ordizia	943 88 91 06
OSTATU- Zegama	943 80 10 51
OSTATU- Zerain	943 80 17 99
OTENE- Gaintza	943 88 98 48
OTZAUORTEKO BENTA- Zegama	943 80 12 93
TXINDOKI- Ordizia	943 88 40 49
URKIOLA- Beasain	943 08 61 31

DENDARI ELKARTEAK

ORDIZIAN ELKARTEA - Ordizia

NEKAZALTURISMOAK

ALDARRETA- Ataun	943 18 03 66
ARRIETA- HAUNDI- Zegama	943 80 18 90
BORDA- Olaberria	943 16 06 81
LAZKAO ETXE- Zaldibia	943 88 00 44
LIZARGARATE- Lazkao	943 88 19 74
OIHARTE- Zerain	680 17 12 91
ONDARRE- Segura	943 80 16 64
	943 80 03 26
PAGORRIAGA- Beasain	943 58 20 71
TELLERINE- Zerain	943 58 20 31

SAGARDOTEGIAK

MARISQUERIA KORTA- Gabiria	943 88 71 86
OTATZA- Zerain	943 80 17 57

ZERBITZU TURISTIKOAK

ALARPE- ZALDIZKO IBILBIDEAK	943 88 05 76
ALDABE- GIDA ZERBITZUAK	943 80 15 05
EKITUR- GIDA ZERBITZUAK	943 88 23 09

LANDETXEAK

DINTIBARRENA- Zegama	943 80 00 98
LIEPNIGARAKOA- Mutiloa (Ijarnia)	943 80 16 99

HOTELAK

CASTILLO- Olaberria	943 88 19 58
IGARTZA- Beasain	943 08 52 40
ITXUNE- Ormaiztegi	943 88 73 51
SALBATORE- Beasain	943 88 83 07
ZEGAMA OSTATUA- Zegama	943 80 10 51
ZEZILIOENEA- Olaberria	943 88 58 29

ATERPETXEAK

ATAUN	943 18 00 34
SEGURA	943 80 10 10
ZEGAMA	943 80 11 15
ZERAIN	943 80 15 05

KIROL ZERBITZUAK

KIROL ZERBITZUAK- Ordizia	943 88 93 33
---------------------------	--------------

Altzaga Arama Ataun Beasain Gabiria Gaintza Idiazabal Itsasondo Lazkao

Legerreta Mutiloa Olaberria Ordizia Ormaiztegi Segura Zaldibia Zegama Zerain

www.goierri.org

GOIERRI TURISMOA goitur.goieki@goierri.org Tlf. 943161823 ORDIZIA